

Euskara Jendea dokumental sorta hau oso baliagarria izan daiteke irakaskintzan. Ikasleak gure kulturaren irudi osatuago bat izan dezan helburu, dokumentalak material osagarri egokia izan daitezke klaseetan garatzen den lanerako.

Euskara Jendea dokumentalak gelan erabiltzeko posibilitateak anitzak dira. Ikasleen adin eta mailaren arabera irakasleak behar du zehaztu zein den ongi heldu zaion gaia, orokorra bada (Herriaren historia, euskararen bilakaera, kulturaren garapena...) ala konkretuagoa (Lore Jokoak, klasikoen sorrera, gaskoinak, Atlantikoko pidgina, zeltak, euskara batua, erromatarrak...) eta hor txertatu dagokion dokumental pasarteak.

Dokumentaletako edukia zuzenean lantzeko gaia izan daiteke ala beste ikasgai baten barnean erabili daiteke helburu bikoitza erdiesteko. Hemen aurkezten dugun materiala, Ane Galdosek eta Miren Amurizak HUHEZIn baitan prestatuak, azken mota honetakoa da. Lan hau erabilpen posible baten adibidea da. Anek eta Mirenek Hizkuntza eremuan txertatu dute dokumentalen edukia, helburua ere bikoitza delarik: ahalmen komunikatiboak lantzea eta dokumentalen edukia bertan txertatzea.

Lana, aise asma daitekeenez, berdin uztar daiteke Gizarte gaien edota Historian, Literaturan... irakasleak dokumentalen edukia osagarri egokia ikusten duen edozein alorretan.

EUSKARA JENDEA

Gure hizkuntzaren historia. Gure historiaren hizkuntza.

- SEKUENTZIA DIDAKTIKOAK -

1. HISTORIAURREA

*Harri aroko paisaia gorri
negu hotzenetan hotzen,
Pirinioen pasabidedik
ehundaka zelta zetozen,
euskal lurretan irrintzi hotsak
aditu zituzten ozen,
kobazuloak margotuz eta
trikuharriak jasotzen;
gudu handien parte izango zen
herri txiki bat jaio zen.*

AZKEN XEDEA

Sekuentzia Didaktiko honen amaieran mezu elektroniko bat idatziko dugu. Sekuentzia osoan zehar Historiaurrean Euskal Herrian zer gertatu zen ikertuko dugu. Dakigunez, Historiaurrean bizi ziren gizakiak kobazuloetan margolan ederrak egiten zituzten. Bada, gure helburua kobazulo horietako bat bisitatzea izango da, garai hartako bizimodua hobeto ezagutzeko. Baina horretarako, lehenengo, zuzendariari txangoa egiteko eskaera egin beharko diogu posta elektroniko bidez.

1. jarduera: ZER DAKIGU GAIARI BURUZ?

Gure aurrezagutzak aktibatzeke, gela bi taldetan banatuko dugu. Talde bakoitzak 5-6 galdera inguru prestatuko ditu, Historiaurreari buruzkoak. Gero, taldeetan sortu diren galderak trukatu ditugu. Hala, talde bakoitzak beste taldean egin diren galderei erantzuten saiatu beharko da. Bukaeran, denon galde-erantzunak elkartuko ditugu eta talde handian, guztion ekarpenekin, erantzun guztiak osatzen saiatuko gara.

2. jarduera: MEZU ELEKTRONIKOA IDAZTEN IKASTEN

Oraingo honetan gutako bakoitzak mezu bat idatziko du posta elektroniko bidez³. Mezu hori testuinguru formalean kokatuko dugu eta norbaiti zerbait eskatzeko erabiliko dugu. Imajinatu herriko alkateari edota Ikastolako zuzendariari idazteko aukera dugula. Zer eskatuko genieke? Bada, minutu batzuek gaia pentsatuko dugu eta berehala mezua idazteari ekingo diogu. Behin mezuak idatzi ditugunean, irakasleak horietako batzuk aukeratuko ditu eta guztion artean irakurriko ditugu. Ondoren, hausnarketa txiki bat egingo dugu, honako galderei erantzunez:

- Zein mezu gustatu zaigu gehien? Zergatik?
- Zein iruditu zaigu mezurik egokiena? Zergatik?

³ Ordenagailuz egiteko aukerarik ez badago, orri batean egin daiteke. Ordenagailuz eginez gero, posta elektroniko bat sortu daiteke, email guztiak hara bidaltzeko eta guztiek izan dezaten aukera guztien mezuak irakurtzeko

3. jarduera: TESTUAREN EGOKITASUNA

Jarduera honetan taldeka jarriko gara eta hurrengo pasarteak irakurriko ditugu. Testu hauetan agertzen diren igorle eta hartzailearen harremana nolakoa den asmatu beharko dugu. Ondoren, emandako txantiloian sailkatu beharko ditugu, batetik, erregistro formala adierazten duten hitz edo esapideak eta, bestetik, erregistro informala adierazten dutenak. Horrez gain, erregistro formaleko nahiz informalean ezagutzen ditugun beste hitz edo adierazpide gehiago erantsiko ditugu.

Arratsalde on:

Eskoriatzan uztailearen 22tik ubuztuaren 15era arte egingo dudana argazki erakusketaren inauguraziora etortzeko gonbitea luzatzen dizut. Erakusketaren inaugurazioa Kultura Etxeko aretoan izango da uztailearen 22an, arratsaldeko 19:00etan.

Egun horretan gurekin izango zarelaokan, agur bat.

Iepa!

Pentsetan neban ez zala inoiz ailegauko baina bai! Azkenian 18 urte! Zapatuan bazkaixa eittie pentseu dou 14:00etan. Etorriko za, ezta? Kriston ondo pasaukou!

Epa nagusi!

Aurrekoan kafe garaian esan zenunari erantzun nahi diot. Ez naio ados esan zenunakin ta horregatik erantzuten dizut. Oso leku txarrean utzi ninduzun besteen aurrean, etzait gustatzen besteen aurrian parregarri geratzia. Ematentzun kexati hutsa nintzela ta hori ezta egia. Beti lan piloa iten det eta ez naiz inoiz kexatzen.

Ados?

Kaixo, Marijo:

Mezu honen bidez jakinarazten dizut Arrankudiagako normalkuntzako teknikaria hautatzeko epaimahaia maiatzaren 17an bilduko dela (astelehena), goizeko 10:00etan, Udaletxean bertan. Epaimahaikidea zarenez, hautaketa-frogetara aurkeztu direnen zerrenda bidaltzen dizut, jakinaren gainean egon zaitezten. Zalantzarik baldin baduzu, dei iezadazu edo bidali mezu bat.

Itxaso Urkia Pagola
Hautaketa Zerbitzuko teknikaria
IVAP
943 017 623

Kaixo lagun maitia:

Azkenean badut betarik aspaldi igorri behar nizkizun eleak izkiriatzeko. Ez zenuen halakorik espero, ezta? Ba, abagune xarmangarri hau aprobetxau gura nuke ene esperientzia "super" honen nondik norakoak kontatzeko....

Erregistro informaleko adierazleak	Erregistro formaleko adierazleak
<p>Erregistro nahasterik ikusi al duzue?</p> <p>Desegokitasunik ikusi duzue?</p>	

4. jarduera: EREDUA AZTERTZEN

Jakin badakigu edozein gutun edo posta elektronikoa igorlearen asmo edo helburuaren arabera, desberdina izango dela. Jarraian lau testu irakurriko ditugu eta hurrengo galderei erantzuten saiatuko gara:

- Zein helbururekin idazten du jarraian ikus dezakegun testu bakoitzak?
- Horietako zein da eskaera mezua?
- Zein pista ematen digu testuak hori baieztatuzko?

GAIA: Bihar goizean ez dugu INTERNETik izango

Egun on, lankideok:

Mezu honen bidez jakinarazi nahi dizuegu bihar goiz osoan internet ez dela erabilgarri egongo.

Sareko konexioarekin azken aste hauetan sortu diren arazoak konpontzeko asmoz, bihar teknikariak etorriko dira eta esan digutenez, eguerdira arte ezin izango dugu internet erabili. Hortaz, posta elektronikoa ere ez da ibiliko.

Ahalik eta lasterren konponduko dutelakoan, espero dugu arazo larririk ez sortzea.

Eskerrik asko zuen arretagatik.

Ana Iribar

Informatika Saileko burua

SAPIENS liburu-dendak, SM

944 148 125

(www.euskara.euskadi.net/r59-18645/eu/contenidos/informacion/agiri_ereduak_32_posta/eu_post/postae_adibide1.html)

GAIA: GALDEZKA liburuaren aurkezpena

Idazkari andrea:

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) GALDEZKA liburua argitaratu berri du. Liburu horretan euskararen inguruko hainbat galderari erantzuten saiatu gara; interesgarria da, beraz, irakasleentzat, itzultzaileentzat, normalkuntzako teknikarientzat eta, oro har, euskaraz lan egiten duten guztientzat.

Aurkezpena datorren astean egingo dugu, eta pozgarria litzateke niretzat zu gurekin egotea.

Eguna: 2005/03/11 (ostirala)

Ordua: 11:30 (aurkezpenak 20 minutu-edo iraungo du)

Tokia: Lakua 1eko bilera aretoa

(Eusko Jaurlaritzaren Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz)

Bertan elkar ikusiko dugulakoan, jaso ezazu nire agurrik beroena.

Jon Isasi Iruretagoiena

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria

IVAP

(IVAP estilo liburuaren moldatua)

GAIA: Akatsa telefono fakturan

Jaun/andre hori:

Telefono konpainia batekin daukat kontratatuta 934382437 linea. Azken bi hileko faktura jaso dut, 360 eurokoa. Okerren bat dago faktura horretan. Izan ere, gure etxeko gastua ez da inoiz 70 euro baino handiagoa izan. Ikusten duzuen bezala aldea izugarria da. Gainera, egindako deien zerrenda aztertzerakoan, konturatu gara abuztuan egin direla deiak eta, gainera, 902 zenbakietara. Gu abuztuan ez gara etxean egon, beraz, ezin izan dugu deirik egin. Internetik ere ez daukagu etxean.

Erreklamazioa telefonoz egin dut eta haiek esaten didate hori dela nire telefono zenbakiaren gastua eta ez daukadala zer eginik. Arazoa konpondu gabe dago eta beldur naiz hurrengo fakturan zer etorriko ote den.

Beraz, bi gauza eskatzen ditut: azkeneko faktura zuzendu dezala telefono konpainiak eta deiak nork egin dituen aztertu dezatela, horrelakorik gehiagotan gerta ez dadin.

Mezu honekin batera doakizue aurreko bi fakturak eta abuztuko hoteleko faktura.

Nire kexa kontuan hartuko duzuelakoan, zuen erantzunaren zain gelditzen naiz.

Amaia Fuentes Fuentes.

(<http://www.ehu.es/azpidazki/PDFak/Idatziak1.pdf>, *moldatua*)

GAIA: Udal liburutegia adin txikikoek erabiltzeko eskaera

Ametx erakundeko zuzendari jauna:

Gutun honen arrazoia udal liburutegian ezarritako arau batekiko gazteon desadostasuna da. Jakina denez, nagusien liburutegian, talde lanak egiteko moldatuta dituzten gelak daude, baina hauek erabili ahal izateko adinez nagusia izatea ezinbestekoa da.

Nik, adin txikiko ikasle gazte bezala, gutun honen bidez eskatu nahi nizuke gela hauek adin txikiko gazteontzat ere irekitzea, izan ere, lan egiteko toki egokiak direla uste dugu, eta udal liburutegiaz gain ez daukagu non lanean aritu. Unibertsitateetan ez bezala, institutuko ordutegitik kanpo bertako liburutegia ixten dute, ikasleek ikasgelak utzi bezain laster eta ondorioz, bertakoek ez dugu han ezer egiterik. Gainera, lehen aipatutako gelak gazteontzako eskuragarri jartzeak gure hezkuntza, jarduera eta kooperazioa sustatzeko aukera ona da, nire iritziz.

Nire eskaera onartuko duzulakoan, zure erantzunaren zain gelditzen naiz.

Leire Gorriño Lariz
Urritxe Institutuko ikaslea

(<http://leioregl.blogspot.com.es/2012/05/eskaera-gutuna.html>, *moldatua*)

5. jarduera: MEZU ELEKTRONIKOAREN EGITURA

Dagoeneko ikusi dugu igorlearen helburuaren arabera, testuak ezberdinak direla. Orain ikus dezagun posta elektronikoek daukaten egitura. Talde txikietan elkartuko gara eta aurreko jardueran dauden testuei erreparatuta, posta elektronikoaren atalak zeintzuk diren bereizten saiatuko gara.

Ondoren, talde handian eztabaidatuko dugu.

- Zeintzuk dira posta elektronikoaren ezaugarri orokorrak?
- Zein atal ditu posta elektronikoak?
- Zein desberdintasun dago gutunaren eta posta elektronikoaren artean?
- Erabilitako hasierako eta bukaerako agurrak aproposak iruditu zaizkigu?

Saia gaitzen orain taldeka posta elektronikoetan erabili ditugun hasierako eta bukaerako agurrak txantilo honetan zerrendatzen eta bururatzen zaizkigun beste batzuk gehitzen:

HASIERAKO AGURRAK	BUKAERAKO AGURRAK
LAGUNARTEKOAK:	LAGUNARTEKOAK:
NEUTROAK:	NEUTROAK:
FORMALAK:	FORMALAK:

6. jarduera: KONTROL-ZERRENDA ERAIKITZEN

Dagoeneko ikusi ditugu posta elektronikoaren zenbait eredu eta badakigu zeintzuk diren testu mota honek izan behar dituen atalak eta ezaugarriak. Beraz, orain gure kontrol-zerrenda eraikitzeari ekingo diogu. Ikusi berri ditugun ezaugarriok zerrendatuko ditugu, sekuentzia bukaeran sortuko dugun eskaera mezuan kontuan izateko.

Kontrol-zerrenda

1. Erregistro egokia aukeratu du.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.
- 6.
- 7.
- 8.
- 9.
- 10.

7. jarduera: ARDATZ KRONOLOGIKOA

Testu generoaren lanketa albo batera utzita, has gaitezen Historiaurrearen nondik norakoak lantzen. Garai honetan hobeto kokatzeko, ardatz kronologiko bat osatuko dugu. Horretarako, lau taldetan banatuko gara eta talde bakoitzak lau etapa hauetako baten inguruko informazioa bilatu beharko du:

1. Paleolitoa
2. Neolitoa
3. Kobre eta brontze Aroak
4. Burdin Aroa

Informazio ugari aurkituko dugunez gero, Euskal Herriarekin lotura duten datuak lehenetsiko ditugu. Ardatz kronologikoa egiteko, *Dipity* programa erabiliko dugu. Talde bakoitzak bere zatia osatutakoan, ikaskideei 7 minutuko aurkezpen labur bat egingo diegu. Ariketa borobiltzeko, lau etapak elkartuko ditugu ardatz bakarrean eta gelakide guztiei bidaliko diegu dokumentua. Hartara, aurkezpenean sartu ezin izan dugun informazioa ere, guztion eskura egongo da.

Lanean hasi baino lehen, ardatz kronologikoa egiteko zenbait aholku eta eredu ikusiko ditugu batetik, eta *Dipity* programa nola erabiltzen den bestetik.

Nola sortu ardatz kronologikoa?


1. Ardatza zehazteko, lehenengo data eta azkenekoa zeintzuk izango diren erabaki. Adibidez, Kristo aurreko 4000. urtetik gaur egunera arteko aro historikoak adieraziko ditugu.

2. Erabiliko ditugun denbora-unitateak erabaki: mendeak eta urteak, milurtekoak eta mendeak, etab. Ia 6.000 urteko epea irudikatu behar dugunez, milurtekoak eta mendeak erabiliko ditugu, urte guztiak azaltzea ezinezkoa ez ezik oso neketsua litzatekeelako.

3. Bi lerro paralelo eta bi lerro bertikal marraztu, bata hasieran, K.a. 4000. urtea adierazteko, eta bestea amaieran, 2000. urtea adierazteko.



4. Lortzen den segmentua zati berdinetan zatituko dugu. Kasu honetan sei zati berdinekin behar ditugu, sei milurteko adierazteko.



5. Aztergai dugun aroko gertakariei buruz informatu eta garrantzitsuenak aukeratu. Ardatzean txertatzeko irudiak ere aurkitu ditzakezue.

6. Milurteko bakoitzari dagokion zatia hamar zatitan banatuko dugu. Hamar zatitxo horiek mendeak adieraziko dituzte. Gero, ardatzean agertzea nahi dugun gertaerak idatziko ditugu goiko aldean eta datak adieraziko dira beheko aldean. Denbora tarteak eta ardatzean islatzen direnak proportzionalak izan behar dira.



www.wikispaces.com
(Alkartu Ikastola, Barakaldo)

8. jarduera: KOMUNIKAZIO MODUEN BILAKAERA

Aurrerago ikusiko dugun dokumentalak, hauxe diosku kobazuloetako artearen inguruan:

“Oker genbiltzake artearen zentzu estetikoari bakarrik erreparatuko bagenio; arte figuratiboa deus bazen, komunikazio sistema bat baitzen. Artea, seguruenik, gauzak kontatzeko sortua izango zen. Adibidez mitoak erakusteko, istorioak kontatzeko edo, askotan esan izan den bezala, ehiza hobea izateko erritual bezala. Helburu askoz sinpleagoa ere izan zezakeen; kobazuloaren barruan ibilbidea adieraztea. Hainbat kobazulotan ikus daitezke margoak amildegi edo zuloen alboan.”

Azpian Santimamiñe eta Ekaingo kobazuloetan aurkituriko margoak ditugu ezker-
eskuma.. Erreparatu diezaiegun:



www.kultura.ejgv.euskadi.net



hogeita.wp3.korpoweb.com/en/irudimen

Dokumentalarekin jarraituz, ondorengo baieztapen hau entzungo dugu hizkuntzaren inguruan: *“Arteak duen mezua transmititzeko hizkuntza bat behar da. Ideia sakonak izan daitezke: bizitzari eta heriotzari loturikoak, bizarauteko pentsamenduak... Horrelako ideiak adierazteko, hizkuntzak nahiko garatua izan behar du. Arteak komunikatzeko eredu sofistikatu baten eskizari jarri gaitu eta hainbat ikerketa egin dira. Askoren ustez, baliteke gaur egun erabiltzen ditugun hainbat erro eta onomatopeia Historiaurrekoak izatea.”*

Har ditzagun pare bat minutu irakurritakoaz hausnartzeko. Jarraian jolas bi egingo ditugu komunikazio egoera ezberdinak lantzeko:

Bi taldetan banatuko gara eta talde bakoitza txoko batera joango da ondorengo jarduera hauek egitera. Hogei minuturen ondoren, txokoz aldatuko gara.

Marrazketa txokoa	Mimika txokoa
<ul style="list-style-type: none"> - Paper marroi handi bat zabalduko dugu eta hamar minutu izango ditugu nahi duguna marrazteko. - Ondoren, sortutako muralari erreparatuko diogu eta marrazki bakoitzak zer iradokitzen digun eztabaidatuko dugu. Egileak zer adierazi nahi izan duen asmatzen saiatuko gara, eta hala ez bada, egileak berak azalduko du. - Bukatzeko hausnartu galdera hauen inguruan hausnartuko dugu: <ul style="list-style-type: none"> a) Nola sentitu zara marrazten aritu zarenean? b) Eta ingurukoak zuen marrazkiari begira egon direnean? - Nahi izanez gero, murala gelan zintzilikatu daiteke. 	<ul style="list-style-type: none"> - Binaka elkartuko gara eta elkarrizketa bana asmatuko dugu onomatopeiak eta zeinuak bakarrik erabilia. - Ondoren, ikaskideei antzeztuko diegu eta hauek zer esan nahi izan dugun asmatu beharko dute. - Bukatzeko, hausnarketa txiki bat egingo dugu galdera hauen inguruan: <ul style="list-style-type: none"> a) Nola sentitu zara antzezpena egiten? b) Hitzak falta izan al zaizkizu? c) Esan duzuna entzuleengana iritsi dela sentitu al duzu?

9. jarduera: "HISTORIAURREA" DOKUMENTALA

Ondorengo minutuotan Euskal Herriko historiaurreari buruzko dokumental bat ikusiko dugu. Egon gaitezen adi; ondorengo jardueretarako erabilgarria izango baitzaigu jasoko dugun informazioa.

10. jarduera: EZTABAIDA DEZAGUN

Jarraian, dokumentalean ikusitakoak eta orain arten ikasitakoak abiapuntu harturik, euskara eta euskaldunon historiaren inguruko zenbait ideiarri buruzko eztabaida egingo dugu *Work Caffé* teknika erabiliz. Lau taldetan banatuko gara eta lau dinamizatzaile izendatuko ditugu. Dinamizatzaile bakoitzak azpiko galdera bat hartuko du eta taldez-talde joango da eztabaida planteatzen eta ideiak jasotzen. Talde txiki bakoitzak 8 minutu izango ditu eztabaidarako. Bukaeran, dinamizatzaileek bildutako ideiak antolatu eta ikaskideei azalduko dizkiete. Gogoratu denbora zaintzea garrantzitsua dela dinamika ez moteltzeko.

Dinamizatzailea	Galdera
1	- Kobazuloetako margoak komunikazio-tresna zirela ikusi dugu. Gaur egun ba al dugu antzeko eredurik? Eraginkorrak al dira?
2	- Euskararen lurraldera hainbat hizkuntza sartu zirela ikusi dugu dokumentalean (indoeuroparrak, latina, erromantzeak...), baina hala ere biziraun egin du. Azken urte hauetan zein hizkuntza sartu dira euskararen lurraldera? Zein erronka ditu gaur egun euskarak?
3	- Topiko hedatua da euskara Neolitoko hizkuntza dela dioena, tresnak izendatzeko "haitz" erroa erabiltzen duelako (<i>aizkora, aiztoa, aitzurra...</i>). Dokumentalean baieztapen hori okerra dela ikusi dugu, zergatik?
4	- Demagun norbaitek ondorengoa diotsuela: "Euskara ez da hizkuntza indoeuroparren eta erromanikoen adarrekoa beraz horrek esan nahi du ez duela horiekin harremanik izan". Nola frogatuko zenioke aurkakoa?

11. jarduera: GU ERE IKERLARI

Hainbat jarduera egin ditugu dagoeneko Historiaurrean eta gutunen idazketan trebatzeko; beraz, jar gaitezen azken ekoizpenera begira. Atal honetan aintzinako aztarnak dituen Euskal Herriko txoko bana aukeratu eta informazioa aurkitu beharko dugu; internet bidez, etxean galdetuta, liburutegian... Gogoan izan, azken ekoizpenean aukeraturiko leku horretara irteera bat egitea eskatu behar dugula, beraz informazio esanguratsua aukeratzen saiatu behar dugu. Ondorengo taula baliagarria izan dakiguke bilaketarako.

Nora joan gaitezke?	Zer jakin behar genuke?
<p>- Haitzuloak: Bizkaian: Askondo, Santimamiñe Gipuzkoan: Ekain, Ermittia, Altxerri, Arbil, Praileaitz, Arrikrutz Lapurdi: Sara Nafarroan: Alkerdi, Zugarramurdi Nafarroa Beherea: Izturitze, Otsozelai Zuberoan: Etxeberri</p> <p>- Nekropoliak: Bizkaian: Argiñeta (Elorrio)</p>	<p>- Historiaurreko zein etapatakoa da?</p> <p>- Zer ikusi genezake bertan?</p> <p>- Ba al du loturarik eskolan ikasitakoarekin?</p> <p>- Leku horretatik gertu, ba al dago bisitatu genezakeen beste zerbait?</p> <p>- Nola irits gaitezke bertara? oinez, garraio publikoan, autobusez...</p>

<p>- Trikuharriak: Zuberoan: Altzürükuko Ithe Araban: Aizkomendiko trikuharria, Bilarreko Sorgiñen txabola Nafarroan: Aralarko trikuharriak, Artaxona</p> <p>- Harrespilak: Nafarroa Beherea: Ilarritako harrespilak Gipuzkoan: Oianlekuko harrespilak</p>	<p>- Noiz joan gaitzke?</p> <p>- Zenbat diru ordaindu beharko luke bakoitzak gutxi gora-behera?</p> <p>- Deigarria iruditu zaizun beste edozer ere aipatu dezakezu.</p>
--	---

12. jarduera: GUTUNA IDAZTEN

Dagoeneko ondo menderatzen ditugu gutun bat idazteko urratsak eta gure proposamena egiteko informazio nahikoa bildu dugu. Beraz, errepasatu dezagun kontrol-zerrenda eta ekin diezaiozun gutuna idazteari. Mezu horren bidez, irteera bat egiteko eskaria luzatu behar diogu ikastetxeko zuzendaritzari.

Eskaera gutuna zuzendaritzari

Gutunen idazketa bukatutakoan, irakasleak jasoko ditu zuzenketak egiteko. Ondoren llaunaka elkartuko gara eta gure gutunak irakurriko dizkiegu kideei. Laukote bakoitzean gehien gustatu zaigun gutuna aukeratuko dugu eta ostera ere denok batera elkartuko gara. Gutun hautatu horien artean, bat aukeratuko dugu bozketa bidez eta egoki eritziz gero, zuzendariari igorriko diogu. Kontuan izan gutunean proposatzen den irteera bezain garrantzitsua dela idatziaren txukuntasuna.

13. jarduera: IKASITAKOAZ HAUSNARTZEN

Proiektua bukatzeko, orain artean ikasi dugunari buruzko gogoeta bat egingo dugu. Irakurri ditzagun azpiko galderak eta idatz dezagun labur-labur bururatzen zaiguna.

- a) Sekuentzia Didaktiko honetan ikasitako zer da, nire ustez, interesgarriena?
- b) Aurreiritzirik eraisteko balio izan al dit?
- c) Zertan aldatu zait Euskal Herriari buruzko begirada?

Azken gogoeta Sekuentzia Didaktikoaz

❖ IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

I. SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN NONDIK NORAKOAK:

Ideia Nagusiak	Eraisten diren aurreiritziak
<p>Ideia nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Euskal Herriaren isolamendu eza: Piriniotako pasabidean, zelten etorrera...- Euskararen jatorria ez da ezagutzen:<ul style="list-style-type: none">- Teoria ekonomikoa: gu ez gara inongo. <p>Azpigaiak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Kultur era desberdinak garaietan barna:<ul style="list-style-type: none">- Heriotz erritoak: trikuharriak, harrespilak...- Nola eraikitzen da harrespil bat- Kobazuloetako artea- Neolitikokoaren iraultza: abeltzaintza eta nekazaritzaren etorrera.- Genetikoki inguruko herrien parekoa- Protoeuskara- Euskal-iberismoa	<ul style="list-style-type: none">- Euskara eta Euskal Herria isolatuta egon dira Historian zehar.- Euskaldunek ez zuten harremanik izan beste tribu batzuekin.- Euskara Neolitoko hizkuntza da.

II. JARDUERETARAKO AHOLKUAK

2. jarduera: MEZU ELEKTRONIKOAK EGITEN IKASTEN

Aurretetan agertzen diren hutsuneen arabera, zenbait baliabide linguistiko landu daitezke. Kasu honetan, kohesio-elementuak, puntuazioa edo antolatzaileak lantzeko jarduerak proposa daitezke.

4. jarduera: EREDUA AZTERTZEN

Hona hemen 4. jarduerako testuen sailkapena:

1. testua: jakinarazpen mezua
2. testua: gonbita
3. testua: erreklamazioa
4. testua: eskaera mezua

5. jarduera: MEZU ELEKTRONIKOEN EGITURA

Jarduera honetan mezu elektronikoaren ezaugarriak eta egitura identifikatzeko proposatzen da, baita hasierako eta bukaerako agurrak zerrendatzea ere. Ondorengo txantiloiak baliagarriak izan daitezke irakaslearentzat.

Posta elektronikoaren egitura
GAIA:
HASIERAKO AGURRA
MEZUA
BUKAERAKO AGURRA
IGORLEAREN DATUAK
(BABES-OHARRA)

Posta elektronikoa idazteko irizpideak
<ul style="list-style-type: none">▸ Mezu bakoitzak gai bat jorratu behar du. Horrela, errazago sailkatu eta artxibatuko dugu.▸ Jarri mezua zertan den labur eta zehatz. Badago horretarako laukitxoa, eta hartzaileak eskertuko du.▸ Estilo erraza eta zuzena erabili, ez hotzegi, ez adeitsuegi jokatuz. Hori bai: bazter ezazu betiere umorea eta adar-jotzea.▸ Kontuan izan, Word fitxategi edo programa handiak eransten badituzu, arazoak izan ditzakeela hartzaileak zure mezua deskargatzerakoan.▸ Baliabide tipografiko gutxi ditu, oraingoz, posta elektronikoak (letra-motak etab.). Moldatu zaitetz daukazunarekin.▸ Ez idatzi dena letra larriz, izan ere hartzaileak pentsatuko du oihuka ari zarela.▸ Kontuz laburdurekin eta siglekin. Oso erabiliak dira mezu-mota hauetan, bai; baina litekeena da hartzaileak ez ezagutzea edo oker ulertzea.▸ Lehen esan dugunez, mezu hauek azkar idatzi ohi dira; hori dela-eta, akastunak izaten dira sarri. Beraz, badakizu: bidali baino lehen, begiratu ondo (forma, behintzat).▸ Ez bidali erantsitako artxibategirik mezurik gabe; besterik ez bada, agurtu hartzailea eta idatzi lerro bat edo beste, zer ari zaren bidaltzen jakinarazteko.▸ Mezuaren bukaeran jaso itzazu datu hauek:

- Izen-abizenak
- Lanpostua
- Zerbitzua
- Telefonoa
- Mezua edozeini ez zabaltzeko ohartarazpena.

(IVAPeko estilo-liburutik aterata)

AGURRAK:

	Lagunartekoak	Formalak	Neutroak
Hasierako agurrak	Zer moduz? Bizi al haiz? Kaixo: Epa! XX maitea: Adiskide hori: Lagun hori:	(Agur) Jaun/Andre agurgarria: (Agur) Jaun/Andre argia: Jaun/Andere txit gorena: Jaun/Andre agurgarri hori: XX estimatua: (Agur) Jaun/Andre ohoregarria: (Agur) Jaun/Andre preziatua: Alkate Jaun/Andre agurgarria:	Jauna: Andrea: Jauna/Andrea: Jaun/ Andre hori:
Bukaerako agurrak	Besarkada handi bat Ondo segi Ondo izan eta ikusi arte Ongi izan eta hurrengora arte Agur eta goraintziak Oraingoz besterik ez Besterik ez Ikusi arte Har ezazu nire agurrik adiskidekorrena Ondo ibili Agur bero bat	Adeitasunez Jaso esazu nire agurrik beroena Begirunez Adeitasunez Beti zure esaneko Zure esanetara Mila esker zure laguntzagatik Aldez aurretik eskerrak emanez Har ezazu nire esker onaren eskermina Zure berri laster izango dugulakoan	Agur t'erdi Mila esker zure laguntzagatik Besterik gabe, agur Zure zain geratzen gara Agurtzen zaitut Besterik gabe, agur Zure erantzunaren zain Zure erantzuna baiezkoa izango delakoan, agur t'erdi Har ezazu nire agurrik beroena Horrenbestez, agur

		Gure eskaria kontuan hartuko duzulakoan	
--	--	---	--

(Berritzeguneko *Gazteak eta gizartea* SDtik aterata)

GAIA AURKEZTEKO ESAMOLDEAK

...dela medio... / ...dela bide...
-(r)en ondorioz
-(r)entzat
-(r)en eskariz/-(e)k eskatuta
Jaso berri dut...
jaso dugula adierazi nahi dugu.../...hartu dugula jakinarazi nahi dugu...
Honekin batera doakizu.../Honekin erantsi dizugu...
Eskertu nahi dugu.../Gure eskerrak eman nahi.../Eskertuko genuke...
...dela eta...
-(r)i erantzunez...
-(r)en arabera/-(r)ekin bat etorritz
Gure eskuetan.../Esku artean...
-(r)i erantzuna eman nahian
... jaso dut...
Sentitzen dugu.../Zoritxarrez, esan behar dizut...
Atseginez.../Atsegin dut...-(e)la
erantzunik jaso ez dugunez gero...
Jakin dezazun.../-(r)en berri izan dezazun
Jakinaraziko dizugu.../Zu jakinaren gainean jarriko zaitugu...
Egunean jarri
Honen bidez.../Honen bitartez...
Ulertuko dituzun arrazoiak direla eta...
Eskatu nahi dizugu.../Eskatu nahiko genizuke.../Mesedez
Zuk agindu bezala
Zure eskura jartzeko daukagu.../Zuretzat dugu.../Hemen dugu zuretzat...

7. jarduera: ARDATZ KRONOLOGIKOA

Ardatz kronologikoa egiten hasi baino lehen, ikasleek ereduak ikusi ditzaten komeni da. Hona hemen zenbait lotura:

http://www.timerime.com/es/linea_de_tiempo/1058600/Ardatz+kronologikoa/
<http://jewishinteractive.net/2012/08/dipity-com-going-back-with-the-future-challenges/>

Ardatza egiteko aholkuak eta ereduak aztertu ondoren, azaldu ikasleei *Dipity* programa nola erabiltzen den. Honats baliagarriak izan daitezkeen bi esteka:

- *Dipity*:

<http://www.dipity.com/>

- *Dipity* nola erabili urratsez urrats: <http://anabast.wordpress.com/2011/02/25/ikasgelan-ardatz-kronologikoa-sortzen/>

8. jarduera: KOMUNIKAZIO MODUEN BILAKAERA

Marrazketa txokorako paper zati handi bat eta margoak behar dira. Espazioak ematen duenaren arabera, ikasle batzuk gelan gera daitezke (Mimika txokokoak adibidez) eta besteak kanpora (pasillora) atera. Jarduera girotzeko musika lasaia jartzea ondo legoke; helburua ikasleak ahalik eta eroso sentituz, beraien sormena askatzea baita.

III. MATERIAL OSAGARRIA

Gaia	Lotura
Historiaurrea	Suaren bila (Jean-Jacques Annaud, 1981) Filma Antzinako herriak (Askoren Artean, Tartalo, 2001)
Historiaurrea EHn	http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/es/contenidos/informacion/argitalpenak/es_6092/adjuntos/EH/EUSKARA/EHH3.PDF http://www.hiru.com/historia/los-origenes-de-la-humanidad "Historiaurrea Euskal Herrian" CD pedagogikoa (jolasa). Eusko Ikaskuntza. http://www.orioprodukzioak.com/eu/produccion-81-6/ekain-zaldien-leizea (<i>Ekain: zaldien leizea</i> dokumentala)
Gipuzkoako historia	Gipuzkoako historia ipuinen bidez 2. Ekaingo haitzuloan. Historiaurrea k.a. 12.000 (Mixel Murua, Elkar 2010) (DVD eta narrazioa) Gipuzkoako historia ipuinen bidez, 3. Opario bat egunsentian.

Euskararen historia	Burdin Aroa. Iruntxur, K. a. 300 (Pako Aristi, Elkar, 2010) http://www.argia.com/multimedia/dokumentala/euskararen-jatorria-enigma-euopar-bat (<i>Euskararen jatorria: enigma euopar bat</i> , dokumentala)
Historriaurreko artea	http://www.euskara.euskadi.net/r59-luredir/eu/contenidos/articulo/c0101/eu_d0101001/0101001.html

IV. Txangoak:

Txangoa	Informazioa
<p>Haitzuloak: Bizkaian: Askondo, Santimamiñe Gipuzkoan: Ekain, Ermittia, Altxerri, Arbil, Praileaitz, Arrikruz Lapurdi: Sara Nafarroan: Alkerdi, Zugarramurdi Nafarroa Beherea: Izturitze, Otsozelai Zuberoan: Etxeberri</p> <p>Nekropoliak: Bizkaian: Argiñeta (Elorrio)</p> <p>Trikuharriak: Zuberoan: Altzürükuko Ithe Araban: Aizkomendiko trikuharria, Bilarreko Sorgiñen txabola Nafarroan: Aralarko trikuharriak, Artaxona</p> <p>Harrespilak: Nafarroa Beherea: Ilarritako harrespilak Gipuzkoan: Oianlekuko harrespilak</p>	<p>http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=3716&idioma=EU&bnet_mobile=0&dpto_biz=4&codpath_biz=4 295 2321 2326 3716 (Santimamiñe)</p> <p>http://www.oinati.eu/turismoa/arrikruz-onatiko-kobak (Oñati)</p> <p>http://www.turismozugarramurdi.com/?idioma=eu (Zugarramurdi)</p> <p>http://sitesetmuseeenpaysbasque.com/eu/grottes_isturitz_oxocelhaya.php (Izturitze)</p> <p>http://www.ekainberri.com/ (Ekain)</p> <p>http://www.grottesdesare.fr/eusk/lezea_eusk.php (Sara)</p> <p>http://www.elorrio.net/eu-ES/Elorrio-Ezagutu/KulturOndarea/Orrialdeak/Al_NecropolisdeArgineta.aspx (Elorrio)</p>

2. ERROMAKO INPERIOAN

*Euskal Herrira ere heldu zen
erromatarren armada;
sortu ahala hiri handiak
eta ehundaka galtzada,
latina sartu ziguten baina
zapaldu zuten euskara.
Beraz ez dugu zertan so egin
Asterixen Galiara,
iraupenaren adibiderik
argiena geu baikara.*

AZKEN XEDEA:

Sekuentzia Didaktiko honetan, ikasle izatetik irakasle izatera pasatuko gara eta gure ikaskideei Erromako inperioaren ezaugarri eta gertakari ezberdinen berri emango diegu. Horretarako, alde batetik, erromatarren garaiko elementu historikoak aztertuko ditugu. Bestalde, azalpen batek izan beharreko oinarrizko egitura eta osagaiak landuko ditugu. Proiektu honen azken xedea, edukiaren eta hizkuntzaren lanketa uztartuz, ahozko azalpenetan euskarri izango dugun diapositiba aurkezpen eraginkor eta erakargarri bat sortzea izango da.

1. jarduera: ZER DAKIGU GAIARI BURUZ?⁴

Gaian murgiltzeko eta aurrezagutzak aktibatzeko, *musika kaxaren jolasa* egingo dugu. Horretarako irakasleak musika jarriko du eta borobilean eseriko gara denok. Musika entzuten dugun bitartean, elkarri kaxatxo bat pasatzen joango gara. Barruan, erromatarren garaiarekin zerikusia duten hainbat papertxo izango ditu (izenak, lekuak etab.). Irakasleak musika geratzen duenean, kaxa eskuartean duenak papertxo bat atera eta kontzeptu horri buruz dakiena azaldu beharko die ikaskideei. Jolas honen helburua guztiok ekarpenen bat edo beste egitea da, beraz onartuko ez den erantzun bakarra isilik geratzea izango da. Kasu horretan baino ez dugu kanporatuko partehartzaile bat. Gainerantzean, hitz guztien inguruan zerbait ateratzen saiatuko gara guztion artean.

2. jarduera: DIAPOSITIBAK EGITEN IKASTEN

Jarduera hau egiteko bost taldetan banatuko gara. Talde bakoitzak jarraian zerrendaturiko gaietako bat hartuko du eta informazioa aurkitu beharko du:

⁴ Jarduera hau burutzeko bi eskola ordu behar dira.

1. Globalizazioa⁵.
2. Antzinateko tribuak: autrigoiak, karistiarrak, barduliarrak, baskoiak eta akitaniarrak.
3. Erromatarren hedapena Europan (espazioan/denboran zentratu).
4. Erromatarren aztarna arkitektonikoak Euskal Herrian.
5. Latina eta euskararen arteko harremana eta elkarreragina.

Ondoren, ahozko azalpen bat eta diapositiba aurkezpen bat prestatu beharko ditugu. Baldintza bakarra dugu: aurkezpenak hamar minutu iraun behar ditu gehienez.

Behin aurkezpenak prestatuta, ikaskideen aurrean egingo ditugu. Talde bakoitzak beste baten inguruko oharra jasoko ditu beheko txantiloia oinarri hartuta; lehen taldekoek bigarrenenak, bigarrenek hirugarrenenak eta horrela hurrenez hurren bostak egin arte. Aurkezpen bakoitzaren ondoren, ebaluatzen aritu den taldeak beren oharra azalduko dizkie ikasleei⁶.

Taldea:	Gaia:
INDARGUNEAK	AHULGUNEAK

⁵ Erromatarren inperioaren hedapena lehen globalizazioa izan zela ulertzen dugu.

⁶ Gorde ohar hauek, aurrerago berriz erabiliko ditugu eta.

3. jarduera: EREDUA AZTERTZEN

Jarduera honetan ereduak aztertzeari ekingo diogu ordenagailuak erabiliz. Hiru taldetan banatuko gara eta talde bakoitzak ondorengo hiru aurkezpen hauetako bat behatuko du:

1. Romae Historia:

<http://es.slideshare.net/cavetecanes/romae-historia-1195280>

2. Erromatarren historia:

<http://es.slideshare.net/123456rgs/cfakepath1-m-17-gaia-erromatarren-historia-rg>

3. Hispania erromatarra:

<http://es.slideshare.net/asunasenjo/hispania-erromatarra>

Jarraian, talde bakoitzak dokumentu bat sortuko du *Google Docs* programa erabilia eta dagokion diapositiba sorta aztertuko du honako taula hau betez:

Edukiari dagokionez	Aurkezpenari dagokionez	Bestelako oharrak
<ul style="list-style-type: none">- Zein da aurkezpenaren gaia? - Zein da aurkezpenaren egitura nagusia? - Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ondo bereizten al ditu? - Edukiak modu antolatuan ematen al ditu? - Informazioa esanguratsua al da? (gehiegi, gutxiegi...) - Nolako esaldiak erabiltzen ditu? (luzeak, laburrak, aditz forma...)	<ul style="list-style-type: none">- Aurkezpen erakargarria iruditu al zaizu lehen begiratuan? - Testuen aurkezpenak laguntzen al du informazioa hobeto ulertzen? - Nolako koloreak erabiltzen ditu? - Eta nolako letra motak? - Diapositibetan testu gehiegi/ gutxiegi al dago? - Testuan ideia nagusiak, izenburuak etab. nabarmentzen al ditu? Nola? - Baliabide osagarririk erabiltzen al du? (irudiak, bideoak, grabaketak...)	

Ariketa hau borobiltzeko, irakasleak pantailan proiektatuko ditu hiru aurkezpenak eta talde bakoitzeko kide batek, labur-labur azalduko ditu ateratako ondorioak. Bukatzeko, taulentzat sortutako dokumentuak beste taldeetako ikasleekin partekatuko ditugu.

4. jarduera: KONTROL-ZERRENDA ERAIKITZEN

Diapositiba aurkezpen baten ezaugarri ezberdinei erreparatu diegunez gero, gure aurkezpena sortzeko abiapuntu izango dugun kontrol-zerrenda osatuko dugu guztion artean. Horretarako, 3. jardueran sortutako taulak berrikusiko ditugu eta ondoren, garrantzitsuenak iruditzen zaizkigun irizpideak zerrendatuko ditugu taula batean. Ariketa hau ere *Google Docs* erabilia egin dezakegu.

Kontrol-zerrenda

1. Aurkezpenak informazioa hobeto ulertzen laguntzen du.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.
- 6.
- 7.
- 8.
- 9.
- 10.

5. jarduera: AZALPEN TESTUAREN EGITURA

Jarduera honetan, gure aurkezpenen muina izango diren azalpen testuen egituraren murgilduko gara eta, horretarako, bi lan burutuko ditugu. Lehenik eta behin, irakur dezagun aztergai dugun generoaren ezaugarriei buruzko testu hau eta azpimarratu ditzagun ideia nagusiak. Bigarrenik, azpimarraturiko ideiak ikaskideekin partekatuko ditugu eta irizpide garrantzitsuren bat aurkituz gero, kontrol-zerrendari gehituko diogu.

Zein egitura du azalpen testu batek?

SARRERA:

Gaian murgildu baino lehen, nolabaiteko **hurbilketa** bat egin beharko da, **gaia** bera **justifikatuz**. Honi **problematika** deritzo, hau da, gaiak galdera bat planteatuko dio irakurleari galderak ezkututzen duenaren garrantzia justifikatuz. Izan ere, galdera horri erantzuna eman beharko diogu gure

azalpenean. Era berean, lan nagusi batean oinarritu bagara gure azalpenetarako, hau da lana eta autoreak aipatzeko lekua.

GARAPENA:

Sarrera eta azalpenaren hasiera lotuko dituen antolatzailearen batez baliatuz, gure azalpenari ekingo diogu. Lan batean oinarritu bagara, komeni da lanak berak jarraitzen duen eskema errespetatzea. Jakina, honek aurretik **laburpen** bat egingo izatea eta **edukien aukeraketa** eskatzen ditu. Hurrengo atalean azalduko dut hau. Honez gain, **tematizazioa** kontuan izan beharko dugu: paragrafo bat, ideia bat; paragrafoari hasiera paragrafoaren gai nagusia esplizituki jarritz emango diogu.

ONDORIOA:

Azaldu dugunaren **sintesia gai nagusia** berriro ere esplizituki adieraziz. Gure azalpena lan nagusi bateko edukiak azaltzera mugatzen bada, hemen lehenbizi lan horretako autoreen testuko ondorioak eta gero gureak azalduko ditugu.

GURE IRITZIA:

Azalpen testuak objektiboak badira ere, guri testuan gure iritzia sartzea ere eskatu zaigu, beraz, hau amaieran koka dezakegu edo azalpenetan zehar nahi izanez gero.

Lierni Garmendia
Itzulpengintza eta Interpretazioko ikaslea

6. jarduera: TESTUA OSATZEN

Aztergai dugun testu motaren egitura nagusia aztertu ondoren, beha diezaiozun antzinako euskal tribuei buruzko idatzi honi. Azalpen testuaren egiturak eskatzen dituen atal guztiak betetzen al ditu?

Aintzinako euskal tribuak

Autrigoien lurralde historikoa, gaur egungo Kantabria, Burgos, Bizkaia, Araba eta Errioxak osatuko lukete. Inguruko tribuak bezala, austrigoiak ere erromatartuak izan ziren eta jatorrizko hizkuntza galdu zuten leku askotan. Karistiarrak ere, iberiar penintsularen iparraldean kokaturiko tribu bat izan ziren; gaur egungo Bizkaian eta Araban egon zirenak hain zuzen. Bizi ziren lurraldeak egungo mendebaldeko euskalkia hitz egiten den eremuarekin bat egiten du. Barduliarrak aldiz, gaur egungo ia Gipuzkoa osoan (iparrekialdeko Oiartzun bailaran eta mendebaldeko Debako lurretan izan ezik) eta Arabako ekialdean bizi izan ziren. Estrabon geografo greziarrak emandako berrien arabera, barduliarrak abelazkuntzatik eta fruituak biltzetik bizi ziren, emakumezkoek paper garrantzitsua betetzen omen zuten beraien gizartean eta adineko pertsonenganako begirune handia zuten.



Barduliarren alboan, baskoiak zeuden; Ebro ibaiaren eta Pirinioen artean zegoen herria. Erromatarrek administrazioan eta hiriguneetan latina sartzea lortu zuten arren, nekazaritza inguruetan aintzinako euskarari eustea lortu zuten baskoiek. Azkenik akitaniarrak ditugu; Pirinioetatik iparralderantz Garona ibairaino eta hego-ekialderantz Aran bailararaino (Lleida) hedatu zirenak. Estrabonek akitaniarrak argi desberdintzen zituen iparraldeko galiarrengandik, hauen arteko desberdintasunaren ezaugarri, hitz egiten zituzten mintzairak aipatuz. Era berean, Pirinioetatik hegoalderantz kokaturik zegoen populazioarekin akitaniarrek zituzten berdintasunak azpimarratu zituen. Orduetik mantendu diren lekukotasunek adierazten dutenez, euskarak eta akitanierak antzekotasun handiak dituzte.

Hainbat iturri (testu moldatua)

Dagoeneko testua irakurri eta falta dituen zatiak identifikatu ditugunez gero, idatz ditzagun azalpena osatzeko beharko lituzkeen atalak.

SARRERA:

ONDORIOAK:

IRITZIA:

7. jarduera: INFORMAZIOA LABURTZEN ETA ESKEMATIZATZEN

Orain artean idatzizko azalpen testuekin jardun gara, baina jar gaitzen gure azken xedeari begira. Diapositiba aurkezpen batean, funtsezkoa da eman nahi dugun informazioa ondo laburtzea eta antolatzea. Langintza horretan trebatzeko, euskararen hastapenei buruzko testu hau irakurri eta ondorengo lan hauek bete beharko ditugu binaka:

1. Ideia nagusiak azpimarratu.
2. Testuaren laburpena egin modu eskematikoan.

Eskema bukatutakoan, egindako lana beste bikote batekin trukatu dugu eta alderatu egingo ditugu.

Euskararen historiaren hastapenak

Europako hizkuntzen mapa ez da beti izan orain ezagutzen dugun bezalakoa. Gizakiaren joan-etorriak eta tribu-komunitate batzuen nagusitasunak eraginda, erabateko aldaketak izan ditu historian zehar. Orain bost mila urte euskaldunen komunitateak hartzen zuen lurraldea egungoa baino askoz zabalagoa zen, eta indo-europearrak ez ziren hainbat hizkuntzaz inguratua zegoen. Euroasiar tribuak, zeltak kasu, mendebaldera zabaltzen hasi ziren. Piskanaka-piskanaka, hizkuntza indo-europarrak nagusitu ziren kontinentean bertako tribu-hizkuntzen kalterako. Neolitikoan ordea, K.a. 2000 urte inguruan, Pirineo bi aldeetako biztanleek mintzatzen zuten hizkuntza oraingoaren oso antzekoa zen; protoeuskara, alegia. Euskara izan ezik, bertako hizkuntza denak ordezkatuak izan ziren. Euskara da, beraz, hizkuntza indo-europarrak hego-mendebaldera zabaldu aurretik sortu eta bizirik mantendu den Europako antzinako hizkuntza bakarretako bat.

Ez da zaila garai hartako euskal-gizakiaren bizimodua irudikatzea: nomada, ehiztari, fruitu biltzaile eta artzain jendea baitzen. Lurraldea berriz, baskoniako golkoa eta Garona eta Ebro ibaiaren bi ertzen haratagotik, egungo Lleida edo Mediterraneoraino hedatzen zen. Antropologia ikerketa modernoagoek adierazi dezaketen arraza-ahaidetasunez landa, nahiko ziurra da tribu guzti haien hizkuntza komuna euskara zela pentsatzea. Giza talde haiek arraza berekoak izan ala ez, historian zehar gizarte antolamendu, egitura juridiko-politiko eta herri-sentimendua garatu eta mantendu dute antzinako beren lurraldean bertan.

Euskara idatziaren lehen aztarnak erromatarrak Euskal Herrira etorri ziren garaikoak dira; erromatar berriemaileek Pirineo mendien bi aldeetan bizi ziren baskoien familiako tribu desberdinei buruz hainbat datu idatzi baitzituzten. Aipatzekoa da, akitaniarren lurretan hainbat euskal hitzen inskripzioak aurkitu direla. .

Euskararen jatorri genetikoari buruz, ordea, hainbat ikerlarik erabilitako tesietan bat bera ere ezin da frogatutzat eman; ez eusko-iberiarra; ez, eusko-kauasiarra; ez, eusko-berebera eta ezta beste zenbait harreman-hipotesi ere. Dena den, egindako ikerketa guzti horiek lagungarri gerta daitezke protoeuskaratik egungo euskararaino izandako bilakaeraren arrastoak aurkitzeko.

Indoeuropar guztien etorrera baino arriskugarriagoa izan zen euskararentzat erromatarrena (Hegoaldean, Ebrotik gora K.a. 178 inguruan eta Iparraldean K.a. 56an); latinak hartu baitzuen

prestigio handiena administrazio, merkatariza zein kultura mailan. Erromako eliza eta kristautasunaren zabaltzeak bultzatuta, latina hizkuntza indartsu bihurtu zen eta eragin zuzena izan zuen euskararen eremuaren murrizketan. Inperioaren erroreraren ondoren, latinetik sorturiko hizkuntza erromanikoek bete zuten bere lekua.

www.puntubi.com
(testu egokitua)

8. jarduera: AHOZKO AURKEZPENETARAKO ESTRATEGIAK⁷

Dagoeneko aztertu ditugu gure aurkezpenaren idatzizko atalaren oinarriko ezaugarriak, beraz, orain errepara diezaiogun ahozkoari. Jarduera honetan ondorengo lanak bete beharko ditugu: lehenik eta behin, ahozko aurkezpen txukun bat egiteko aholkuak biltzen dituen taula hau irakurriko dugu eta aipagarrienak iruditzen zaizkigunak kontrol-zerrendari erantsiko dizkiogu.

Nola prestatu aurkezpena?	Nola egituratu aurkezpena?	Nola izan eraginkorra?
<ul style="list-style-type: none"> - Egin plangintza zehatz bat - Definitu aurkezpenaren komunikazio helburua (informazea, konbentzitzea...) - Kontuan hartu entzuleak (kopurua, beraien interesak, aurrezagutzak...) - Iturri ezberdinetako informazioa bilatu eta egokiena aukeratu (laburtu) 	<ul style="list-style-type: none"> - Sarrera: entzuleak agurtu, gaia aurkeztu, aurkezpenaren egitura azaldu, galderak egiteko arauak jakinarazi. - Mamia: ideia nagusiak azpimarratu, ondo bereizi atal desberdinen arteko banaketa. - Bukaera: puntu garrantzitsuenak laburtu, entzuleei eskerrak eman, galderen tarteak zabaldu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Entseatu aurkezpena. - Kontrolatu denbora. - Astiro eta lasai hitz egin. - Hizkuntza gardena. - Esaldi labur eta zehatzak. - Zaindu entzuleekiko harremana: begirada, egokera... - Zaindu intonazioa. - Behar bezala erantzun galderari.

J. Landaluze (IKERLAN)

Taula aztertu ondoren, *Rol Playing* jolasa egingo dugu. Irakasleak hiru bolondres aukeratuko ditu eta bakoitzari aurkezle mota baten ezaugarriak biltzen dituen txartel

⁷ Jarduera honen osagarri, *Pizkundera* Sekuentzia Didaktikoko 8. eta 9. jarduerak erabil daitezke baita ondorengo artikulua ere: <http://www.slideshare.net/goiztiriakgoierri/ahozko-aurkezpenak>

bat emango dio. Hiru ikasle horiek minutu batzuk izango dituzte aurkezpena prestatzeko eta ondoren, ikaskideen aurrean egin edo antzeztu beharko dute. Gainontzeko ikasleek, ikusi berri ditugun aholkuetatik abiatuz, hiru aurkezleen profila asmatu beharko dute beraien indarguneak eta ahulguneak identifikatuz.

Rol playing-a bukatu ondoren, har ditzagun minutu batzuk ondorengo galdera hauen inguruan gogoeta egiteko:

- Nolako komunikatzailea naiz?
- Nola sentitzen naiz jendaurrean hitz egiten?
- Zeintzuk dira nire indarguneak?
- Zertan hobetu nezake?

9. jarduera: “ERROMAKO INPERIOAN”⁸ DOKUMENTALA

Ondorengo minutuotan, erromatarren garaian euskarak eta euskal herriak bizi zuten egoera nolakoa zen kontatzen duen dokumental bat ikusiko dugu. Aurrera egin orduko, itzul gaitezen une batez 2. jarduerara. Jarduera hartan, talde bakoitzak gai baten inguruko informazio bilketa egin behar izan zuen, beraz, dokumentala ikusten dugun bitartean, bakoitzak dagokion gaiari buruzko oharra hartu beharko ditu.

10. jarduera: EZTABAIDA DEZAGUN

Dokumentala ikusi eta oharra jaso ondoren, taldeka elkartuko gara eta ondorengo baieztapenen inguruan eztabaidatuko dugu. Gogoratu talde bakoitzean idazkari bat izendatzeaz, berriz talde handian elkartzen garenean ideiak partekatu ahal izateko.

Baieztapenak

1. Euskaldunek isolaturik eta konkistatuak izan gabe biziraun dute.
2. Euskal Herriko tribuek ez zuten harremanik izan erromatarrekin.
3. Erromatarrek traba handiak izan zituzten beraien adminstrazioa, sistema militarra nahiz kultura ezartzeko.
4. Euskararen inguruan zegoen hizkuntza bakarra latina zen.
5. Euskararen eremua gaur egungo Euskal Herrira mugatzen zen.
6. Euskarak ez zuen latinetik hitzik hartu.

⁸ Ariketa hau egiteko ordubete baino gehiago behar da

11. jarduera: GU ERE IKERLARI

Dagoeneko proiektuaren bukaerara iristen ari gara eta jar gaitezen azken ekoizpenari begira. Bigarren jardueran jasotako informazioa eta Sekuentzia Didaktikoan zehar ikasitakoak abiapuntutzat harturik, aurretestu gisa egindako diapositiba sorta moldatu eta osatuko dugu. Azken ekoizpena 10 minutuko aurkezpena izango da eta nahi izanez gero, honako programa hauek ere erabil ditzakegu lanerako: [Prezi](#), [Prezentit](#), [HelloSlide](#), [Animoto](#), [Storify](#), [Screenr](#), [Glogster](#), [Slidepoint](#), [Pecha Kutxa](#).

Gogoratu, diapositibak prestatzea bezain garrantzitsua izango dela ahozko saioa entseatzea.

12. jarduera: AHOZKO AURKEZPENA EGITEN

Dagoeneko prest ditugu diapositibak eta azaldu beharreko informazioa; beraz, aurkezpenak egitea baino ez zaigu falta. Proiektuaren hasieran egin genuen bezala, talde bakoitzak 10 minutuko aurkezpena egingo du eta, bien bitartean, best talde bateko kideek ebaluatu egingo dute. Ikaskideen ebaluazioa egiteko 2. jardueran jasotako oharretan eta kontrol-zerrendan oinarrituko gara eta ondorengo taula beteko dugu. Azkenik, aurkezpenei buruzko feedback-a emango diegu.

Edukiari dagokionez	Gaiari dagokionez	Bestelako oharrak
Zertan hobetu dute?	Zertan hobetu dute?	Zertan hobetu dute?

Zertan hobetu dezakete?	Zertan hobetu dezakete?	Zertan hobetu dezakete?
-------------------------	-------------------------	-------------------------

13. jarduera: IKASITAKOARI BURUZ HAUSNARTZEN

Sekuentzia Didaktikoa bukatzeko, egin dezagun azken gogoeta bat orain artean ikasi dugunari buruz eta idatz ditzagun ideia horiek labur-labur. Hona hemen abiapuntua:

- a) Sekuentzia Didaktiko honetan ikasitako zer da, nire ustez, interesgarriena?
- b) Aurreiritzirik eraisteko balio izan al dit?
- c) Zertan aldatu zait Euskal Herriari buruzko begirada?

Azken gogoeta Sekuentzia Didaktikoaz

❖ IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

I. SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN NONDIK NORAKOAK

Ideia nagusiak	Eraisten diren aurreiritziak
<p>Ideia nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskal Herriaren isolamendu eza: Erromak osoki konkistatu zuen. - Latinak eragin handia izan zuen Euskararen baina ez zen desagertu. <p>Azpigaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehenengo hiriak: Pompaelo, Oiasso, Veleia... - Bide sarea: Galtzadak, itsas bideak. - Hiritartasuna: armada, Colchester. - Euskararen hedapena: Soria, Saint Bertrand de Comminges... - Hizkuntza ofiziala (latina) vs herri hizkuntza (euskara) - Toponimia. 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskaldunek isolaturik eta konkistatuak izan gabe biziraun dute. - Euskal Herriko tribuek ez zuten harremanik izan erromatarrekin. - Erromatarrek traba handiak izan zituzten beraien adminstrazioa, sistema militarra nahiz kultura ezartzeko. - Euskararen inguruan zegoen hizkuntza bakarra latina zen. - Euskararen eremua gaur egungo Euskal Herrira mugatzen zen. - Euskarak ez zuen latinetik hitzik hartu.

II. JARDUERETARAKO AHOLKUAK

1. jarduera: MUSIKA KAXA

Jolas honetarako kartoizko kutxa bat erabil zenezakete. Hona hemen barruan sar daitezkeen hogeitaz hitz:

<ul style="list-style-type: none"> - Inperioa - Globalizazioa - Pompaelo - Oiasso - Andelos - Zeltak - Autrigoiak - Baskoiak - Barduliarrak - Akitaniarrak 	<ul style="list-style-type: none"> - Galtzadak - Aldarea - Hizkuntza erromantzeak - Latina - Gaskoiera - Iberiera - Andere - Nescato - Umme sahar - Toponimia
--	---

2. jarduera: EREDUA AZTERTZEN

Ereduko diapositiba aurkezpenak nahiko luzeak dira. Ikasleen mailaren arabera, irakasleak aztertu beharreko atalak aukeratu eta banatu ditzake.

7. jarduera: ESKEMA EGITEN

Ikasleen mailaren arabera, eskema zehatzagoa edo azalekoagoa eska dakieke. Horren arabera, modu ezberdinetan egiteko proposatu dezakegu (zenbakitua, gidoi eta puntuekin, gezi bidez, etab.). Hona hemen eredu bat:

Eskema eredu

Euskararen historiaren hastapenak

1. Europako hizkuntzen mapa aldakorra:
 - 1.1. Euskararen eremua:
 - Garai batean zabalagoa.
 - Hizkuntza ez indoeuroparrez inguratua.
 - 1.2. Neolitoan (K.a 2000) hizkuntza indoeuroparrak sartu arren, protoeuskara mantendu.
2. Orduko euskal lurraldea:
 - 2.1. Lurraldea:
 - Baskoniako golkotik hasita, mediterraneaoraino, Ebro eta Garona ibaien artean.
 - 2.2. Biztanleak:
 - Nomadak, ehizariak, fruitu biltzaileak, artzainak.
 - Hizkuntza komuna: euskara.
 - Herri sentimendua garatu eta mantendu.
3. Euskara idatziaren lehen aztarnak:
 - 3.1. Erromatarren garaikoak.
 - Baskoiei buruz asko idatzi zuten.
 - 3.2. Akitaniako inskripzioak.
4. Jatorri genetikoa:
 - 4.1. Teroria frogatu ezinak:
 - eusko-iberiarra, eusko-kaukasiarra, eusko-bereberea.
 - 4.2. Protoeuskara berreraikitze lagungarriak.
5. Erromatarren etorrera (K.a. 178tik aurrera):
 - 5.1. Latinak prestigioa hartu administrazio, merkataritza, kultura mailan.
 - Kristautasunak eragin handia izan zuen horretan.
 - 5.2. Ondorioz euskararen lurraldea murriztu.
 - 5.3. Inperioa erori eta mende batzuetara, hizkuntza erromantzeek latinaren lekua hartu.

8. jarduera: AHOZKO AURKEZPENERAKO ESTRATEGIAK

Hona hemen ikasleek antzeztu behar dituzten hizlarien profilak. Bakoitzak bost minutu izango ditu.

1. hizlaria	2. hizlaria	3. hizlaria
Gaia: Kontatu asteburuan zer egin duzun.	Gaia: Gomendatu irakurri berri duzun liburu bat.	Gaia: Deskribatu atsegin duzun herri bat.
<ul style="list-style-type: none"> - Oso azkar hitz egiten du. - Urduri dago. - Ez du sarrerarik egin eta zuzenean gaian sartu da. - Ideia solteak aipatu ditu beraien artean loturarik egin gabe. - Bukaeran ez du galderentzako tarterik zabaldu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Motel hitz egiten du. - Lotsatia da. - Sarrera modu egokian egin du. - Esaldi luzeak erabiltzen ditu eta behin eta berriz errepikatzen ditu "eh", "ba" eta antzekoak. - Lurrera begira hitz egiten du. - Bukaeran eskerrak eman ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Lasai hitz egiten du. - Gaia aurkeztu du. - Entzuleei herri hori ezagutzen duten galdetu die. - Ideiak modu antolatuan azaldu ditu. - Informazioa errepikatu du. - Bukaerarik ez du egin; "eta yasta" esanez amaitu du.

III. MATERIAL OSAGARRIA

Gaia	Lotura
Azalpen testuaren egitura.	http://bazenbehinlierni.tumblr.com/post/45844700013/azalpen-testuak-for-dummies
Nola egin Power Point aurkezpen bat?	http://kukularra09.blogspot.com.es/2010/01/power-point-batean-nola-sartu-testua.html
Diapositiba aurkezpenak prestatzeko aholkuak.	http://www.profeland.com/2012/03/como-hacer-una-buena-presentacion-en.html http://www.frescodesayuno.com/2012/01/8-consejos-para-hacer-presentaciones-de.html
Aurkezpenak prestatzeko programa ezberdinak.	Prezi , Prezentit , Helloslide , Animoto , Storify , Screenr , Glogster , Slidepoint , Pecha Kutxa.
Ahozko aurkezpenak nola egin.	http://www.slideshare.net/goiztiriaekgoierri/ahozko-aurkezpenak

Erromatarrak Euskal Herrian.	http://www.puntubi.com/testuinguruak/erromatarrakeuskalherrian.htm
Euskararen historiaren hastapenak.	http://www.puntubi.com/banatzaileak/2nagusieuskara.htm
Protohistoria.	http://assaikastola.wikispaces.com/file/view/PROTOHISTORIA+LANA+wiki.pdf
Euskal tribuak erromatarren garaian.	http://info.ikasgune.com/eu/erromatarrek-topatutako-euskal-tribuak
Erromatarren aztarnak Euskal Herrian.	http://www.kondaira.net/eus/THistoria0004.html http://www.anakel.com/liburua/ikusi/gizartezientziak/1eso/8/curiosidad/4
Erromatarren mehatagia Arditurrin.	http://www.aizunet.org/index.php?option=com_content&view=article&id=919:erromatarren-aztarnen-atzetik
Lergako aztarnak	http://zientzia.net/artikuluak/arditurri-mendeetan-aberastasun-iturri/

IV. TXANGOAK

Txangoa	Informazioa
Mendigorria: Andelos, erromatar hiria	http://www.mendigorria.es/es/visitenos/andelos/
Zirauki: erromatarren galtzada.	http://www.turismo.navarra.es/eus/propuestas/camino-santiago/peregrinos-en-bici/informacion-practica/etapas/camino-frances-etapa-5.htm
Urkulu mendia: Trikuharria eta erromatarren dorrea.	http://luberri.net/mendi/Urkulu
Arditurriko mehatagia	http://www.arditurri.com/
Atharratze: Madalena mendia eta erromatarren aldarea.	http://m.argia.com/artikulu.php?id=1781_paisaje-idilikoetan-zehar
Oiasso erromatar museoa (Irun).	http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/museo.php?id=eu&Nmuseo=1259069447

3. ANIZTASUNAREN BIDEAN

(Erdi Aroa)

*Erromantzeen hots berriez nahiz
euskara zaharraren xarmaz,
mintzatu ginen etorkizunaz,
gogoratu iraganaz.
Done Jakue bidean zehar
bakoitza kultura banaz,
bidaiariak eman zioten
Erdi Aroari arnas,
beraienetik zeozer utziz
ta guretik eramanaz.*

AZKEN XEDEA:

Sekuentzia Didaktiko honen amaieran, albiste bat⁹ sortuko dugu. Imajina dezagun denboraren korrespontsalak garela. Erdi Aroa bidaiatu dugu eta gure lana errealiatea eta fikzioarekin jolastuz orduko gertaeraren bati buruzko albiste bat idaztea izango da. Sortzen ditugun berriekin Erdi Aroko egunkaria sortuko dugu eta gure webgunean argitaratuko dugu.

1. jarduera: ZER DAKIGU GAIARI BURUZ?

Oraingoan, aurrezagutzak aktibatzen, “ideia zaparrada”ren teknika erabiliko dugu. Taldeka jarriko gara (3-4 lagun) eta talde bakoitzean idazkari bat aukeratuko dugu. Irakasleak arbelean zenbait kontzeptu idatziko ditu eta guk kontzeptu horien inguruan bururatzen zaizkigun ideiak edo hitzak esango ditugu talean “ideia zaparrada” eginez. Taldeko idazkariak horiek guztiak orri batean jasoko ditu. Gero, talde handian, talde bakoitzean atera diren ideiak gainerako ikaskideekin partekatuko ditugu.

Edukizko kontzeptuak	Testu-generoari lotutako kontzeptuak
Erdi Aroa Donejakue bidea Orreagako guda Nafarroako Erresuma	Albistea Erreportajea Kronika Titularra

⁹ Eman nahi zaion sakontasunaren arabera, erreportajea ere izan daiteke.

2. jarduera: ALBISTEA EGITEN IKASTEN

Taldeka jarriko gara (5 lagun) eta albiste xeble batzuk idatziko dugu. Taldekide bakoitzean bost galdera banatuko dira eta bakoitzak galdera baten erantzuna prestatu behar du: Nor(k)?, Zer?, Non?, Noiz?, Zergatik?

Orain, asmatu dugun informazioarekin, albiste bat osatuko dugu. Gero, taldekide bakoitzaren berria irakurriko dugu. Guztiak irakurri eta gero, hurrengo galderari erantzungo diegu bakarka:

- Zein da gehien gustatu zaizun albiste? Zergatik?
- Zein da, zure ustez, osatuen dagoen albiste? Zergatik?

Bakoitzak galderari erantzun eta gero, talde txikian komentatuko dugu eta ondoren, talde handira eramango ditugu egindako hausnarketak.

3. jarduera: KAZETARITZA GENEROAK EZAGUTZEN

Taldeka, etxetik ekarri ditugun egunkariak¹⁰ eta aldizkariak behatuko ditugu. Bertan agertzen diren testu-genero ezberdiei erreparatuko diegu eta hurrengo txantiloia beteko dugu:

	TESTU-GENEROA	EZAUGARRIAK
BERRIEMAILEAK		
IRITZIA EMATEKOAK		
NAHASIAK		

4. Jarduera: EREDUA AZTERTZEN

Kazetaritzako genero ezberdinak identifikatu eta gero, albistean jarriko dugu fokua. Oraingo honetan, bi eredu aztertuko ditugu eta berauen ezaugarri eta egiturari erreparatuko diegu. Horretarako, galdera hauei erantzungo diegu:

1. Zein atal nagusi bereiz ditzakegu albiste batean?
2. Zeintzuk dira atal bakoitzaren funtzioak?
3. Nolako titulua dauka albisteak?
4. Zenbat errekurtsio tipografiko erabili ditu?
5. Nola agertzen da aditza testuan?
6. Informazio objektiboa ematen du?
7. Balorazioa adierazten duen hitzik agertzen al da?
8. Identifikatu non agertzen diren 5 galderak (nor(k), zer, non, noiz, zergatik)

¹⁰ Online egunkariak ere izan daitezke



Baskoi eta barduliarren errolda egin zuen erromatarraren hilarria aurkitu dute

Xuban Zubiria

2013-06-04 Mocconio Vero tribunoak 24 hiri barduliar eta baskoien errolda egin zuen K.o I edo II. mendean. Euskara Jendea elkarteak bere hilarria aurkitu du Louvreko biltegi batean galduta, eta bertan idatzita dagoenak erakusten du egungo euskal lurraldean bizi ziren tribuak erromatar administraziopean zeudela. Aspaldi gainditutako euskaldunen isolamenduaren mitoa ezeztatzen duen beste froga arkeologiko bat da beraz.

Hilarria Euskal Herrira ekartzeko lanean ari da Oiasso museoa (Arg.: Euskara Jendea)

Erromatar garaiko euskaldunen bakartasunaren mitoa hausten duen beste froga historiko bat dugu. Lehendik ezaguna zen inskripzio hau, baina, bere kokapen fisikoa ez zen ezagutzen. Aurkikuntza Frantzian egin da, *Euskara jendea* dokumental bilduma egiteko bidean burutu diren aurkikuntza eta dokumentazio lanen baitan. Louvre museoaren menpeko biltegi batean aurkitu dute, Saint Deniseko hangar batean

Aurkikuntzaren garrantziaz jabetuta, Irunen dagoen Oiasso erromatar museokoa den Mertxe Urteagak, hilarria bertaratzeko eskaria egin du jada eta negoziazioak martxan daude, eta bide batez, "euskara jendea" dokumentaleko kideak zoriondu ditu egindako aurkikuntzagatik.

Inskripzioak, I edo II. mendean Mocconio Vero tribunoak Leongo VII. legioan zegoelarik egindako 24 hiri baskoi eta barduliarren erroldaren berri ematen digu. Urteagaren esanetan, honek demostratzen du barduliarrek eta baskoiak erabat txertatuta zeudela antolamendu erromatarrean.

Aditu batzuen arabera Mocconio Verok erroldatutako 24 hiri horiek, Ptolomeok bere *Geografia* liburu historikoan aipatzen dituen berberak lirateke.

'Sua' film luzearen azken grabaketa lanak bukatutzat eman dituzte Ozetan, jaialdi eta guzti

ARANTXA MIKEO.

Donostia

Sua film luzearen azken pasarteak atzo grabatu zuten, Ozetako Otatza auzoan (Araba). Eneko Aritzaren Lagunak kultur elkarteak 2005ean hasi zituen grabaketa lanak, eta ordutik, Euskal Herriko txoko askotan ibili dira. «Araba zen falta zitzaigun bakarra, eta horregatik grabatu ditugu filmaren azken eszenak Otatza», argitu du elkarteko kide Unai Igartuak. Azkena izanik, jaialdi bat ere antolatu zuten atzo, Ozetan, Garaion Naturarte Elkartearen laguntzarekin. Parte-hartzaile eta joandako guztiek elkarrekin afaldu

zuten, eta ondoren, akelarre bat egin zuten, DJ Bullekin. Egun osoan, berriz, gaztetxoek Amaia Zinkuregik gidatutako maskara tailerrean parte hartu zuten.

Pierre de Lancre inkisidoreak 1609an sorginkeriaren kontra Lapurdin egin zituen gehiegikeriei buruzko film luzea da *Sua*. Atzo, Otatzan, herriak inkisidorea bidaltzeko asmoz jauntxoek kontrako altxamenduaren pasarteak grabatu zituen. Igartuaren ustez, «sorginen inguruko istorioak nahiko ezkutuan egon dira duela gutxira arte». Lancre inkisidoreak 600 pertsona baino gehiago torturatu eta hil zituen Lapurdin urte hartan.

Elkartearen baliabide urriak direla eta, lau urtetan grabatu dute filma, baina Igartuak adierazi bezala, gustura daude lanarekin: «Jendea ezagutzeko aukera izan dugu, eta jendeari zer egiten dugun erakutsiz eta interesa piztuz gozatu dugu». Hala ere, film luzeari dagokionez, bere alde txarrak ere izan dituela onartu du Igartuak. Izan ere, aktoreak herritarrak izan dira, eta hilabetean bi edo hiru asteburutan biltzen baziren ere, zaila egin zaie denak batzea. Bestetik, duela lau urte ume zirenak hazi egin dira, eta orain mutil eta neska koxkorak dira.

Pertsonaien eta arazoaren ikuspegi eta alde ezberdinak erakutsi dituzte film luzean. Beldurtuta isildu edo kristau zirela esan zuten horien ikuspuntua jaso dute batez ere. Legazpiko (Gipuzkoa) burdinolan egin zituzten lehen grabaketak, eta Seguran, Gorritin, Gaztelun, Berastegin, Orreagan, Lizartzan eta beste hainbat herri eta txoko askotan izan dira.

Baliabide ekonomikoei dagokienez, maila handi batean, autogestioaren bidez lan egin du Eneko Aritzaren Lagunak elkarteak. Herritarren laguntza eta borondateari esker eginiko lana izan da, «batere baliabide ekonomikorik gabeko filma». Kamera eta euskarri tekniko zenbait Donostiako Larretxene kultur etxeak utzi dizkie; gainerako gutzia elkarteko kideen diruarekin eskuratu dute.

5. jarduera: KONTROL-ZERRENDA ERAIKITZEN

Dagoeneko ikusi ditugu albistearen ereduak eta badakigu zeintzuk diren albiste batek izan behar dituen atalak eta ezaugarriak. Beraz, orain gure kontrol-zerrenda eraikitzeari ekingo diogu. Ikusi berri ditugun ezaugarriok zerrendatuko ditugu, gerora sortuko dugun albistean kontuan izateko.

Kontrol-zerrenda

1. Informazioa ikuspegi objektibotik ematen da.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.
- 6.
- 7.
- 8.
- 9.
- 10.

6. jarduera: “ANIZTASUNAREN BIDEAN” DOKUMENTALA

Orain, Erdi Aroari buruzko dokumentala ikusiko dugu. Adi egon gaitezen, gero testuinguru horretan kokatu beharko baitugu gure albisteak.

7. jarduera: EZTABAIDA DEZAGUN

Dokumentala ikusi ondoren, taldeka elkartuko gara eta hurrengo baieztapenen inguruan hausnartuko dugu. Talde bakoitzeko kide batek esandakoak idatziz jasoko ditu, gero talde handira eramateko.

Baieztapenak

1. Erdi Aroan Euskal Herrian euskaraz bakarrik mintzatzen zen.
2. Erromako Inperioaren hausturak aldaketa sakonak ekarri zituen.
3. Erdi Aroan latina indarra galtzen hasi zen.
4. Goi Erdi Aroan euskarak euskalki asko eta ezberdinak zituen.
5. Garai hartan Errioxan, Hueskan edo Burgosen euskaraz mintzatzen zen.
6. Erdi Aroan gaur egundaino iraun duen herri-sarea sortzen hasi zen, besteak beste, Iruñeko Erresumaren sorrera izan zen.
7. Izkribuetan hizkuntza erromantzeak nagusi ziren arren, euskara zen kalean gehien erabiltzen zena.
8. Erdi Aroan euskara eginkizun mugatuetera zokoratzen hasi zen, gaur arte.
9. XII. eta XIV. mende bitartean hiribilduak sortu ziren, erlazio hertsia zutenak inguruko lurraldearekin.
10. Garai honetan, idatzizko literatura zen nagusi eta garaiko ikuskera zabaltzen zuen.

8. jarduera: GU ERE IKERLARI

Behin dokumentala ikusi dugunean, Erdi Aroko gertakari bat aukeratuko dugu horri buruzko albisteak egiteko. Albisteak kokatzeko orduan, hurrengo gertakariak har ditzakezue testuinguru gisa:

Zenbait gertakari:

Herri "barbaroen" inbasioak V eta VI. mende artean
Musulmanen okupazioa VIII. mendean
Orreagako guda
1276. urteko Nafarreriako guda
Iruñeko Erresuma
Nafarroako Erresuma
Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Gaztelako Erresuman
Hiribilduen fundazioa
Oinaztarren eta ganboatarren arteko liskarrak
Sorginen epaiketak eta hilketak

Dagoeneko gutako bakoitzak hautatu du Erdi Aroko gertakari bat. Orain, nork bere gaiaren inguruan ikertzeari ekingo dio. Horretarako, irakasleak emango dizkigun iturriez gain, beste batzuk aurkitu beharko ditugu (etxean galdetu, interneten begiratu, eta abar). Ondoren, albisterako behar dugun informazioa hautatuko dugu eta atal bakoitzean zer idatziko dugun irudikatuko dugu.

Titulua
<i>Azpitulua</i>
Gorputza
Beste batzuk (informazio osagarria, argazkiak...)
Nork eta non idatzia

9. jarduera: ALBISTEA EKOIZTEN

Iritsi da norberak bere albistea ekoizteko ordua¹¹. Horretarako, gogoan izan orain arte ikasitako guztia.

10. jarduera: ALBISTEA EBALUATZEN ETA ARGITARATZEN

Albistea egiten bukatzen dugunean, gure ikaskide baten albistea ebaluatu beharko dugu sekuentzian zehar egindako kontrol-zerrendaren bidez. Irakasleak ere ebaluatuko du albistea.

¹¹ Ordenagailu bidez egitea komeniko litzateke, errekurtsu tipografikoak baliatu ahal izateko eta argazkiak txertatu ahal izateko.

Bukatzeko, Erdi Aroko gertakariei buruz sortu ditugun berri guztiak elkartu eta Erdi Aroko egunkaria osatuko dugu. Hau gure webgunean argitaratuko dugu.

11. jarduera: IKASITAKOARI BURUZ HAUSNARTZEN

Azkenik, sekuentzia didaktikoan zehar ikasi dugunari buruz hausnartuko dugu, galdera hauek abiapuntu hartuta:

1. Sekuentzia Didaktiko honetan ikasitako zer da, nire ustez, interesgarriena?
2. Aurreiritzirik eraisteko balio izan al dit?
3. Zertan aldatu zait Euskal Herriari buruzko begirada?

Azken gogoeta sekuentzia didaktikoaz

❖ **IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK**

I. SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN NONDIK NORAKOAK

Ideia Nagusiak	Eraisten diren aurreiritziak
<p>Ideia nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Euskal Herriaren isolamendu eza: sueboak, alanoak, bandaloak, bisigodoak, frankoak, juduak, arabiarrek, okzitanoak, gaskoiak... kristautasuna, Donejakue bidea.- Euskara nagusi baina ez bakarra: erromantzeak, hebraiera, arabiera... <p>Azpigaiak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Latinaren haustea: erromantzeen sorrera: gaztelania, gaskoia...- Euskara batu zaharra- Euskararen hedapena: Errioxa, Hueska, Akitania...- Herrien sorrera, populazioaren antolaketa- Nafarroako erresumaren sorrera- Frankoak Iruñean: burgoak- Donejakue bidea: Picaud, euskarazko lehen hiztegitxo- Donemiliaga: glosak- Hiribilduen sorrera: burgesia berria- Ahozko kultura	<ul style="list-style-type: none">- Euskal Herria eta euskara isolatuta egon dira Historian zehar- Euskara zen Erdi Aroan Euskal Herrian hitz egiten zen hizkuntza bakarra.- Euskara egungo Euskal Herrian bakarrik hitz egin izan da.- Ahozko literatura arte pobrea da.

II. JARDUERETARAKO AHOLKUAK

2. jarduera: ALBISTEAK EGITEN IKASTEN

Aurretetan ikusten diren gabezien arabera, jarduera desberdinak proposa daitezke alderdi linguistikoa lantzeko (nominalizazioa, gerundioak, aditzaren aspektua, zehar estiloa...)

3. jarduera: KAZETARITZA GENEROAK EZAGUTZEN

Jarduera honetan kazetaritza genero desberdinak behatu behar dituzte eta bakoitzaren ezaugarriak aztertu. Horretarako, hurrengo txantiloia baliagarri izan daiteke:

	TESTU-GENEROA	EZAUGARRIAK
BERRIEMAILEAK	Abistea Erreportaje objektiboa	- Gertaera baten adierazpena - Albistea baino sakonagoa eta luzeagoa da.
IRITZIA EMATEKOAK	Editoriala Artikulua Kritika	- Albiste bati buruzko egunkariko jabeen iritzia - Autoreak bere ikuspuntutik gertaerei buruz duen iritzia azaltzen du - Liburu, film edo ikuskizun bati buruzko iritzia
NAHASIAK	Kronika Interpretaziozko erreportajea Elkarrizketa	- Kazetariak gertatutakoa (ikuskitzuna, kirol gertakaria...) kontatu, zabaldu eta baloratzen du. - Ikerketa lana, balorazioa sartzen da - Galdera-erantzunen bitartez, elkarrizketatuak iritzia eta informazioa ematen du.

4. jarduera: EREDUA AZTERTZEN

Jarduera honetan albistek dituen ezaugarri orokorrak, atalak eta horien funtzioak aztertu behar dituzte ikasleek. Horretarako, hurrengo eskema baliagarria izan daiteke:

EZAUGARRIAK	ATALAK
<ul style="list-style-type: none"> - Gertakari baten adierazpena - Laburra, argia eta zehatza - Ikuspegi objektiboa - Aditza: 3. pertsona. Orainaldi burutua, lehenaldi burutua edo geroaldia. - 5 galderei erantzun (nor(k), zer, non, noiz, zergatik) - Albistea idatzi duenaren izena, lekua eta data ageri da. 	<p>TITULUA: albistearen laburpena, normalean zer eta nor(k) galderei erantzuten die.</p> <p>AZPITITULUA: oinarrizko informazioa ematen du, 5 galderei erantzuten die.</p> <p>GORPUTZA: albistearen garapena da, gertaerari buruzko ohar guztiak ematen ditu.</p> <p>BESTE BATZUK: batzuetan, informazio osagarria ematen duten atalak agertzen dira</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gertaeran eragina izan duen zerbaiti buruzko informazioa - Gertaera ulertzeko informazio osagarria. - Argazkiak

III. MATERIAL OSAGARRIA

Gaia	Lotura
Orreagako gudua	Gartxot filma http://www.kanaldude.tv/Orreagako-gatazka-778-urtean_v1349.html (Orreagako gudua, dokumentala) http://www.youtube.com/watch?v=a06PxF0a3mo (Altabizkarko katua. Benito Lertxundi)
Erdi Aroa	http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/es/contenidos/informacion/argitalpenak/es_6092/adjuntos/EEH/EUSKARA/EHH4.PDF http://www.euskara.euskadi.net/r59-luredir/es/contenidos/articulo/c0201/eu_d0201005/0201005.html http://www.euskara.euskadi.net/r59-luredir/es/contenidos/articulo/c0103/eu_d0103001/0103001.html
Erdi Aroko gazteluak	Erdi Aroa Euskal Herrian I eta II. (2003) Eusko Ikaskuntza http://www.hiru.com/historia/gazteluak
Iruña-Veleia	http://www.argia.com/astekaria/docs/2193/pdf/p05-09.pdf

IV. TXANGOAK

Txangoak	Informazioa
Leireko monasterioa	http://www.monasteriodeleyre.com/
Aralarko San Migel santutegia	http://www.aralarkosanmigel.info/eus/index.php
Uxueko Santa Maria santutegia	http://www.navarra.es/home_eu/Temas/Turismo+ocio+y+cultura/Museos/Otros+centros+expositivos/Monumentos+vis

Iraxeko monasterioa	itables/Santa+Maria+la+Real+de+Ujue.htm http://www.turismo.navarra.es/eus/organice-viaje/recurso.aspx?o=3150
Orreagako Kolejiata	http://www.roncesvalles.es/directorio/index.asp?id=listado&cat=visit&lg=spa
Ospitalepeko eliza	http://sitesetmuseeenpaysbasque.com/eu/eglise_hopital-st-blaise.php
Zeraingo Aizpeako meategia	http://www.zerain.com/burdinaren-mendia,lista,30,paisaia-kulturala,25,ezagutu,3
Gasteizko Santa Maria Katedrala	http://www.catedralvitoria.com/euskera/index.php
Gares	http://www.puentelareina-gares.es/eu/turismo/que-visitar/

4. MUGETAN GAINDI (Aro Modernoa)

*Mila bostehun eta hamabi
historian mugarria,
Nafarroaren konkistarekin
Orreagan ezarria.
Kantauri ertzetik Ternuaraino
hedatu zen aldarria,
itsasoetan zabaldu arren
gure norantza berria,
lurrean mugaz inguratuta
zegoen Euskal Herria.*

AZKEN XEDEA

Sekuentzia didaktiko honen amaieran, informazio-panela sortuko dugu, taldeka (3-4 lagun), Aro Modernoari buruzko erakusketa bat egiteko. Talde bakoitzak erabakiko du Aro Modernoko zein gairen inguruko panela osatuko duen. Taldeek elkarrekin adostuko dituzte gaiak, ez daitezzen errepikatu.

1. jarduera: ZER DAKIGU GAIARI BURUZ?

Kasu honetan, aurrezagutzak aktibatuzko, *work cafe* teknika erabiliko dugu. Lau talde egingo ditugu. Talde bakoitzean, idazkari bat izendatuko dugu. Hark galdera-sorta bat izango du. Hamar minutu izango du talde bakoitzak idazkariak egiten dituen galderei erantzuteko eta haien gainean hausnartzeko (idazkariak ere egin ditzake ekarpenak). Idazkari bakoitzak bere taldean jasotako informazioa bilduko du, eta hurrengo taldera mugituko da 10 minutuak pasatutakoan. Talde berrian, galderak errepikatuko ditu eta aurreko taldean atera diren ideia nagusiak azalduko ditu. Ondoren, taldeek beste hamar minutu izango dituzte ideia horiei ekarpenak egiteko. Dinamika honekin jarraituko dugu idazkari guztiak talde guztietatik igaro arte. Azkenik, idazkariak talde txikietan jasotakoa partekatuko dute talde handian.

1. Euskaldunak Ternuan

1. Zer iradokitzen digu *pidgin* hitzak?
2. Zer lotura dago euskaldunen eta Ternuaren artean?
3. Ba al dakigu zer den toponimia? Zer ematen digu toponimiari buruzko datuak izateak?
4. Zergatik ageri dira baleak Euskal Herriko kostaldeko zenbait herritako armarrietan?

2. Testuinguru historikoaz

1. Ba al dakigu noiztik eta zeren ondorioz daukagun gaur egungo zatiketa administratiboa Euskal Herrian?
2. Zein gatazka nagusi izan ziren Euskal Herrian XV-XVII mendeetan?
3. Zer eragin izan zuen Frantziako Iraultzak Ipar Euskal Herrian?
4. Ba al dago gure inguruan XV-XVIII mende bitarteko elementurik (eraikinak, armarriak...)?

3. Euskararen egoera

1. Zein zen euskararen egoera XV-XVIII mendeetan?
2. Zer datorkigu burura esaldi honekin: "Euskara, jalgi hadi plazara"?
3. Zein izan zen erlijioaren eta euskararen arteko lotura XV-XVIII mendeetan?
4. Zeintzuk dira euskaraz argitaratutako lehen liburuak?

4. Informazio panela

1. Zer da informazio-panela?
2. Non ikusi izan ditugu informazio-panelak?
3. Zein itxura izaten du informazio-panelak?
4. Zein motatako informazioa biltzen du?

2. jarduera: TESTU BATEN ESKEMA ETA LABURPENA EGITEN IKASTEN

Gauza jakina da informazio-panela egiteko, oso garrantzitsua dela ideiak modu labur eta argian azaltzea. Horretan trebatzeko, ondoko testua irakurri eta ideia nagusien eskema egingo dugu. Ondoren, eskema hori hartuta oinarri, hamar bat lerrotako laburpena idatziko dugu.

Testuaren izenburua: Non da Ternuako bakailaoa?

HISTORIALARI BATZUEN LISTEZ, BAKAILAO-ARRANTZAREN LEHEN ARRASTOAK 1000. urtekoak dira, jada garai haletan bikingoek bakailaoa arrantzatzen baitzuten Eskandinaviako kostaldean. Luzaro gabe, euskal arrantzaleak Bizkaiko golkoa utzi eta Europako uretan bakailaoari jarraituz mugildu ziren, Kantauri Itsasoan ez baitzen, arrantzatu ahal izateko kopuruetan behintzat, bizi bakailaoa. Nahiz eta bakailao-arrantzan aitziandari ez izan, autore batzuen aburuz, berriek garatu zuten bakailaoa gazitzeko teknika eta honek, ustekabean, abantaila ugari eragin zuen. Batekik, arraina luza-roan hondatu gabe mantentzea ahalbidetu zuen eta horrela bidala luzeetako elikagai aproposa bihurtu zen. Urruneko itsaso eta lur ezezagunak gure bihurtzeko bide izan zen bakailaoa gaztua eta, horrela, euskal ontziak Ipar Atlantikoko ur hotzetan arrantza-leku berriak bilatzeari ekin zioten.

Bestalde, espainiar zein atzerri merkatura hedatzeko aukera eskaini zuen. Kristautasunak ere bultzatu zuen bakailao gaztuaren garrantzia; gartzuman ostrialetan haragia jateko debekuak bakailaoa bihurtu baitzuen dieta botetzeko osagaririk nagusiarena.

Ezta ahaztu balearen arrantzak eta bakailaoak duten lotura. Balea arrantza umetiko eremuotara hedatzea epe luzean hondatuko ez zen elikagailak

ahalbidetu zuen, bakailao gaztuak alegia. Honela, baleei jarraituz, gero eta urrunago abiatu ziren lur eta inguru ezezagunak aurkituz, Labrador eta Temua hain zuzen ere. Baleak ur hotz horietara jan bila bertaraten ziren uda-partean eta hortien atzetik euskal arrantzaleak. Bertan lehorreko kanpamentuetan ematen zuten uda balea-

“urruneko itsaso eta lur ezezagunak gure bihurtzeko bide izan zen bakailao gaztua”

-arrantzan. Balea-ugaritasunaz gain, bakailaoa ere oso ugaria zela konturatu ziren eta azken hau arrantzatzeari ekin zioten. Honela, temuar bihurtu ziren euskaldunak. Gerora, bi herrien arteko erlazioa estua izan da eta Ternuan oraindik ugariak diren euskal topónimoak hori gogorarazten digute. Adibide gisa, bertako hiriburuaren izena Saint Johns dela alpatu, Euskal Herriko arrantzaleak bertaratu zirene-

an Donibaneko portuaren (San Juan gaztelaniz) sarrera gogora ekartzea. Adibide-zerrenda mardul honetan Portubio edo Port Basque herren eta Aingura charra (zaharra) zenak ere aurki ditzakegu.


Temuako bakailaoaren ugartasun-hotsak zitu bitan zabaldu ziren Euskal Herriko eta Europako arrantzaleen artean eta konturatu orduko arrantzale gehienak bertara joateko planak egiten ari ziren. Ordutik, Temuako inguruetan bakailao-arrantza arnas garrantzitsua izan zen geure arrantzaletzat. Hasiera batean, XVI eta XVII. mendeetan, arrantza itsasontzi handien itzalpean ziren balupa txikiek burutzen zuten, amuak eta tretzak erabiliz. Itsasontzi handiak kostaldean ainguratuta geratzen zen bitartean, balupa txikak bakailaoa arrantzatzera abiatzen ziren eta harapasketa lehorrean gazitu ondoren, arrantzontzi handian pilatzen zuten. Gerora, XVIII. mendean, arraste-ontzi handiak izan ziren hondoko arraste-sareak erabiliz bakailaoaren arrantza burutu zutenak. XX. mendetik aurrera, bertik, bakailao-arrantza bi ontziren artean burutzen zen arraste-arrantzara aldatu zen, *bikoteko arraste-arrantza*, eta gaur egun oraindik horrela egiten da. ☞

Bikoteko arraste-arrantza


Bikoteko arrantza, izenak dioen bezala, bi ontziren artean burutzen da. Ontzi bakoitzak bere galtzerdi-iburako arraste-sarea du. Bietako baten sarea da lehenik uretara botatzen dena. Arrantza-ontzi batek sareari mutur batek helden dio eta besteak beste mutumetik, hondotik herrestan eramanez. Ondoren, sarea jasotzeari ekiten diote eta berehala bigarren sarea botatzen dute uretara. Horrela behin eta berriro agunean hainbat arrantza-ssio eginez.



Idatz ezazu zure eskema.



Eskema oinarri hartuta, idatzi testuaren laburpena hamar bat lerrotan.



Laburpena idatzi ostean, binaka eseri eta elkarri irakurriko diogu idatzitakoa, baina bestearena entzun ahala, galdera hauei erantzungo diegu:

1. Nire eskeman jaso ditudan ideia nagusi guztiak bildu ditu laburpenean?
2. Zerbait nabaritu dut soberan? Zer?
3. Aholkuren bat eman diezaioket hurrengo laburpena hobetzeko?

3. jarduera: EREDUA AZTERTZEN

Talde handian, saiatuko gara informazio-panel bat zer den zehazten. Horretarako, beheko galderei erantzun:

1. Zein elementu agertzen dira informazio-paneletan?
2. Nolakoak izan ohi dira?
3. Zeri buruzkoak izan daitezke?
4. Ezagutzen al duzu inguruan dagoen informazio-panelik?

Jarraian, bi informazio-panel aztertuko ditugu binaka. Erabil ezazue *Behaketa egiteko txantiloia* panel horien ezaugarriak zehazteko.

ZUAZOLA-LARRAÑA
BH Institutua

ONATI
www.onati.net

DBH
Dinarrizko gaitasunak lortu ikasketekin jarraitzeko eta bizitzan aurrera egiteko.

Batxilerra
Goi Mailako Heziketa Zikloak eta Unibertsitateko askerak zabaltzen.

- Zientzia-Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak

Heziketa Zikloak
Tekniko Titulazioa lortu eta Goi Mailako ikasketetan jarraitzeko edo lan munduan murgiltzeko aukera zabaltzen.

- Mekanizazioa
- Mantenua
- Natur ingurunean/Kirol ekintzen gidaritza

Ikastaroak
Formazioa biltza osorako • Garapen profesional nahiz pertsonala.

- **Langabetuak**
 - Mekanizazioa
 - Soldadura
- **Langileak**
 - Mekanizazioa
 - Mantenu elektro-mekanikoa
 - Linea automatizatutakoak
 - Soldadura mota guztiak
 - Krokizazioa, metrologia eta Kalitate prozedurak
 - Segurtasuna industrian
 - Energia berritagarriak

DBH Institutua

BALDIN BADA

80ko hamarkadaren erdian sortu zen Baldin Bada, Irunen (Gipuzkoa). Musika bidaia oparora izan zuen: punk eta ska doinuetan abiatu zen, reggae giroko abestiak jasotzen hasi zen, landu zituen, eta metal indartsua edo rock iluna jorratuz burutu zuen ibilbidea. Taldeak lau disko utzi zituen, eta 1995. urtean desagegin zen.

Lehen diskoak mitikoa izan zen. Hor biltzen dira Baldin Badaren kantu esanguratsuenak: "Bizi nahi dut!", "Loro", "Ibaldia", "Jo ta ke" eta "Gernika koka-kola". Talde gaztea zen, kale girokoa, eta aldarrikapena eta umorea ez ziren falta haien hitzetan.

Beraz, kamisetaren motibo gisa hain famatua izan zen "Loro" abestiaren letra erabili ditugu, taldearen logotipo eran jarritz. Horrela, taldearen irudi indartsu bat sortuz kamisetarako. "Loro" abestia hursan geratzen den horietako kantua da, baina eta berriz abesten duzuna. Horregatik, abesti horren irudia plasmatu nahi izan dugu, ikusi eta berehala abesten hasteko.

KAMISETA

ETIKETA

Kasetak izan zen 80ko hamarkadako musika erreproduzitzeko moduetako bat, eta nostalgiko jarri, horixe bera izan da berreguratu nahi izan dugun irudi eta soinua. Baldin Badaren kamisetak dakarren etiketa, beraien abestiez hornitutako kasetak izanik. Urte batzuk atzera egin eta gazte bihurtuz abesti hauek.

MARIVI IBARROLAREN
"EUSKAL PUNK-ROCKAREN 80 ARGAZKI" erakusketa
Eider Lakube San Martinen eskutik, Usandizagako Diseinu Grafikoko ikaslea.

Behaketa egiteko txantiloia

1. Nola dago antolatuta panela?
2. Zer agertzen da informazio linguistikoan?
3. Zenbat motatako letra tipoak eta tamainak daude?
4. Zein motatako informazio ez-linguistikoa dago?
5. Zeintzuk dira informazio-panel honen helburua eta gaia?
6. Panelaren gaia nabarmenduta agertzen da? Nola?
7. Azalpen idatziaren edukia, nola dago antolatuta?
8. Atalak bereizuta al daude? Nola?
9. Igorlearen markari agertzen da? (ni, nire, naiz...)
10. Hartzailearen markarik agertzen da? (zu, hi, hire, zarete, dizut...)
11. Zenbagarren pertsona daude jokatuta aditzak?
12. Zein denboratan agertzen dira aditzak?
13. Zein motatako testu-antolatzaileak agertzen dira?

(Berritzegune Nagusiak proposatutako *Hiztunak eta hizkuntzak* SDtik ateratako itemen hautaketa)

4. jarduera: KONTROL-ZERRENDA ERAIKITZEN

Dagoeneko ikusi dugu zein ezaugarri izan ohi dituzten informazio-panelek. Orain, kontrol-zerrenda baten bidez, zehaztu egingo dugu guk sortuko dugun informazio-panelak zein ezaugarri izan beharko dituen. Horretarako, informazio-panela egingo dugun taldekideekin elkartuko gara eta kontuan hartzeko puntuak idatziko ditugu. Zerrenda egiten dugunean, talde handian partekatu eta besteenarekin osatuko dugu kontrol-zerrenda.

Kontrol-zerrenda

1. Testuan ez da agertzen igorlearen eta hartzailearen markarik.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.
- 6.
- 7.
- 8.
- 9.
- 10.

5. jarduera: "MUGETAN GAINDI" DOKUMENTALA IKUSTEN ETA GAIA ZEHAZTEN

Jarraian, dokumental bat ikusiko dugu, Aro Modernoaren ingurukoa. Ikusi baino lehen, ordea, irakasleak zerrendatuko digu zein gai landuko diren dokumentalean zehar, eta talde bakoitzak gai bat hautatuko du informazio-panela egiteko.

Adi egon dokumentala ikusten dugun bitartean; izan ere, hautatu dugun gaiari buruzko informazioa jaso beharko dugu informazio-panela osatzeko.

6. jarduera: EZTABAIDA DEZAGUN

Dokumentala ikusi ondoren, nor bere taldekideekin eseriko da ateratako informazioa partekatzeko. Informazioa partekatu ostean, esaldi hauen inguruan hausnartuko dugu taldekideekin. Horretarako, talde bakoitzeko kide batek esandakoak idatziz jasoko ditu, gero talde handira eramateko.

Baieztapenak

1. Aro Modernoan elebidunik ere izan arren, euskal gizartea, oro har, elebakarra zen.
2. Euskal arrantzaleen joan-etorriek harreman estuak eragin zituzten beste herrialde batzuekin.
3. Frantzia eta Espainia Euskal Herria zatitzen duen muga zehazten hasi ziren.
4. Aro Modernoan euskararen egoera bera izan zen Espainian zein Frantzian.
5. Protestantismoak herri hizkuntzei lagundu zien.
6. Garai hartako idazleek ez zuten hizkuntza bateratua eta landua sortzeko ahaleginik egin.
7. Utrecheko Itunak eta Frantziako Iraultzak euskarari kaltea eragin zion.
8. Aro Modernoan euskal hiztunak isilarazten saiatu ziren arren, euskarak aski tinko eutsi zion lurralde gehienetan.

7. jarduera: GU ERE IKERLARI

Dagoeneko egin ditugu informazio-panela eraikitzeke taldeak, eta talde bakoitzak hautatu du panelerako gaia. Orain, talde bakoitzak bere gaiaren inguruan ikertzeari ekingo dio. Horretarako, irakasleak emango dizkigun iturriez gain, beste batzuk aurkitu beharko ditugu (etxean galdetu, interneten begiratu, eta abar).

Taldeakide bakoitzak dakarren informazioa taldekideekin partekatuko dugu, eta guztion artean informazio-panela osatzeko behar dugun informazioa hautatuko dugu. Hori egin ostean, dokumentaletik jasotako nahiz gure kabuz bilatutako informazioaren ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztuko ditugu. Irakasleak gainbegiratu egingo ditu taldeetako hautaketak, eta zerbait zuzendu behar izatekotan, laguntza eskainiko digu.

8. jarduera: PANELAK EGIN ETA IKUSGAI JARTZEN

Azkenik, informazio-paneletarako sortu dugun kontrol-zerrenda aintzat hartuta, panela osatzeari ekingo diogu. Behin panelak osatuta, talde bakoitzak beste talde batek sortutako informazio-panela ebaluatuko du sekuentzian zehar osatzen joan garen kontrol-zerrendaren bitartez. Irakasleak ere panelok ebaluatuko ditu. Bukatzeko, panelak erakusketa gisa ikusgai jartzeari ekingo diogu.

9. jarduera: IKASITAKOARI BURUZ HAUSNARTZEN

Azkenik, sekuentzia didaktikoan zehar ikasi dugunari buruz hausnartuko dugu, galdera hauek abiapuntu hartuta:

1. Sekuentzia Didaktiko honetan ikasitako zer da, nire ustez, interesgarriena?
2. Aurreiritzirik eraisteko balio izan al dit?
3. Zertan aldatu zait Euskal Herriari buruzko begirada?

Azken gogoeta sekuentzia didaktikoaz

❖ **IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK**

I. SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN NONDIK NORAKOAK

Ideia Nagusiak	Eraisten diren aurreiritziak
<p>Ideia nagusiak: -Euskal Herriaren isolamendu eza: itsasoan mugarik ez. -Euskal Herria zatitzen duen muga zehazten hasten dira Frantzia eta Espainia.</p> <p>Azpigaiak: -Nafarroako konkista -Espainolaren eta frantsesaren presio desberdinak euskararen gainean. -Klasikoen sorrera eta garapena: Sarako eskola -Protestantismoa -Normalizazio saioak - Leizarragaren eredu batua - Euskarazko irakaskuntza: - ABC edo kristionen instruktioea - Ororen eskolak - Liburu teknikoa - Etorkinak euskaraz: Materre, Povreau -Estatu hizkuntz bakarreko politika gauzatzen hasten da. -Ternua: - Pidginak - Toponimia - Fazeriak</p>	<p>- Euskara eta Euskal Herria isolatuta egon dira Historian zehar.</p> <p>- 1512an Nafarroan hasitako prozesua ez zen konkista izan</p> <p>- Euskara batuaren aldeko lehenengo ekimenak XX. mendekoak dira.</p>

II. JARDUERETARAKO AHOLKUAK

2. jarduera: TESTU BATEN ESKEMA ETA LABURPENA EGITEN IKASTEN

Jarduera honetan testu baten eskema eta laburpena egiteko eskatzen zaie ikasleei.
Hona hemen eskema posible bat:

ESKEMA

GAIA: Bakailao arrantza eta euskaldunak

1. Lehen arrastoak: 1000. urtekoak (Eskandinavian Bikingoak)
2. Euskal arrantzaleak eta bakailao gazituak
 - 2.1. Bizkaiko golkotik Europara
 - 2.2. Ipar Atlantikoan arrantza leku berriak topatu
 - 2.3. Gazitzeko teknikak: luzaroan hondatu gabe manten daitekeen baikalaoa
 - 2.3.1. Baiaeren arrantzarekin lotura: urrutira joateko aukera
 - 2.3.2. Euskaldunak ternuar bilakatu: toponimia (Portutxo, Port Basque...)
 - 2.4. Bakailaoaren arrantza Europan hedatu
 - 2.4.1. XVI-XVII mendeak
 - 2.4.2. XVIII. mendea
 - 2.4.3. XX. mendea-gaur egun

3. jarduera: EREDUAK AZTERTZEN

Informazio panelaren ezaugarriak zeintzuk diren argi izan behar dugu (jarraian dauden taula guztiak Berritzegune Nagusiko *Hiztunak eta Hizkuntzak* SDtik hartuta daude).

INFORMAZIO PANELEN EZAUGARRIAK

Era honetako testu-generoetan bi alderdi izan behar dira kontuan: maketazioa eta testu idatzia. Paneletan marrazkiak, irudiak, eta testu idatziak agertuko dira, eta horietako bakoitzak funtzio bat du. Adibidez: Informazio linguistikoa, idatziz datorrena, paragrafoetan bananduta agertuko zaizue eta testuko informazioa antolatzeke balio izango du. Paragrafo bakoitzak ideia bat garatzeko balio izango du; horregatik aurkituko dugu bat, sarrerarako, beste batzuk informazio garatzeko eta azkena, ondorioak ateratzeko. Informazio ez linguistikoak, grafikoak, eskemak, marrazkiak, letra tamaina, letra tipoa, direla medio, berriz, informazioa zehazteko, gehitzeko edo apaintzeko balio izango du.

7. jarduera: GU ERE IKERLARI

Informazioa antolatzeke eta panela sortzeke orduan, hurrengo taulak baliagarriak izan daitezke:

INFORMAZIO PANELA GAUZATZEKO PAUSOAK

Informazio-panelaren kontestualizazioa:

- Komunikazio egoera
 - Gaia
 - Igorlea
 - Hartzailea
 - Kanala
 - Asmoa
 - Erabilpen eremua
 - Testu tipoa
 - Testu generoa
- Informazio- panelaren Plangintza
 - Informazioa aukeratzea
 - Informazioa ordenatzea
- Testualizazioa
- Berrikusketa
- Ebaluaketa

INFORMAZIOA ORDENATZEKO JARRAIBIDEAK

- Ideiak antolatzeko irizpide bat aukeratu
 - Garrantzirik gehien duenetik gutxienera
 - Gauza orokorretatik berezitasunera
 - Denboraren arabera ordenatu
 - Espazioaren arabera ordenatu
- Labur esan
 - Esaldi laburrak
- Atalen arteko koordinazioa izan
- Osotasuna irudikatu
- Hierarkia adierazteko elementu grafikoak eduki

III. MATERIAL OSAGARRIA

Gaia	Lotura
Nafarroako konkista	http://www.argia.com/nafarroaren-konkista
Nafarroa bizirik	http://www.1512-2012.com/?langswitch lang=eu
XVII.mendeko literatura	http://www.noticiasdenavarra.com/2012/05/31/sociedad/nafarroako-konkista-gaur-egun-ezagutzen-ditugun-arazo-askoren-jatorria-da (elkarrizketa)
1512 Nafarroa, amets urratua (komikia)	http://www.elkar.com/es/liburu_fitxa/1512-nafarroa-amets-urratua/asiron-joseba-/-martintxo-il./a000000266734
Euskara aro modernoan (PDF)	http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/EEH/EUSKARA/EHH5.PDF

IV. TXANGOAK

Txangoa	Informazioa
Oñatiko Unibertsitatea eta San Migel Parrokia	http://www.oinati.eu/turismoa/informazioa/bisita-gidatuak
Loiolako Santutegia	http://www.tierraignaciana.com/
Amaiurko monumentua	http://www.consorciobertiz.org/consorcio/quevisitar/lugares-de-interes/molinos-y-queserias/ruinas-castillo-de-amaiur.html

5. GERREN ARTEKO PIZKUNDEAN (XIX. mendea-1944)

*Pizkundeari bide emanaz
herria nahi zen birsortu;
Euskaltzaindia nahiz egunkari,
ikastola, Lore Joku...
Laster iritsi ziren ehundaka
soldadu eta pilotu,
Euskal Herrian piztutakoa
frankistek kontuak kontu,
luzaz estali arren ez zuten
gutziz itzaltzerik lortu.*

AZKEN XEDEA

Sekuentzia didaktiko honen amaieran ahozko azalpen testu bat sortuko dugu, taldeka (3-4 lagun), Euskal Herrian Pizkunde garaian jazotako gertaera garrantzitsu batzuen inguruan berri emateko. Talde bakoitzak aukeratuko du garai horretako zein gertaera edo gairi buruz hitz egingo duen. Taldeek elkarrekin adostuko dituzte gaiak, errepika ez daitezen.

1. jarduera: ZER DAKIGU GAIARI BURUZ?

Unitatearekin hasi baino lehen, goazen ikustera zer dakigun, batetik, Euskal Herrian XIX. mende amaieran eta XX. mende hasierako gertakizun garrantzitsuei buruz eta, bestetik, azalpen testuen ezaugarriei buruz. Horretarako, talde txikietan elkartuko gara (3-4 lagun) eta bi galdera-sortei erantzungo diegu. Lehenengo, talde txikietan hausnartuko dugu eta ondoren, talde handian gainerako ikaskideekin partekatuko dugu. Horretarako, talde bakoitzean idazkari bat izendatuko dugu.

1. Gaiari buruzko galderak

1. Nor zen Napoleon Bonaparte? Zein harreman izan zuen Euskal Herriarekin?
2. Zer dira Lore Jokoak?
3. Zer esan nahi du "zazpiak bat" leloak?
4. Zein eragin izan du Industria Iraultzak Euskal Herrian?
5. Noiz uste duzue sortu zela euskarazko prentsa? Badakizue zein izan zen lehenengo euskal aldizkaria? Eta Frankismo garaia zein nolako eragina izan zuen euskal prentsan?
6. Noiz sortu zen Euskaltzaindia? Zertarako?
7. Gai izango zinateke garai horretako idazleren bat aipatzeko?

Jarraian, irakasleak dokumentalean zehar landuko diren gaiak zerrendatuko dizkigu eta talde bakoitzak, orduan, gaitegiko gai bat aukeratu beharko du amaierako ahozko azalpen testua egiteko. Ondoren, azalpen-testuei buruzko galdera hauei erantzungo diegu:

2. Generoari buruzko galderak

1. Zein hizkuntza ezaugarri dituzte azalpen testuek?
2. Zertan ezberdintzen dira ahozko eta idatzizko azalpen testuak?
3. Zein ezaugarri izan behar ditu jendaurrean egiten den ahozko azalpen batek?
4. Hitzez gaindiko zein alderdi hartu behar dira kontuan?
5. Euskarri lagungarriak erabiltzekotan, nolakoak izan behar dute?

2. jarduera: AZALPEN TESTUA EGITEN IKASTEN¹²

Ahozko azalpenetan trebatzen hasi aurretik, horiei buruz zenbat dakigun aztertuko dugu. Horretarako, hiru pertsona beharko ditugu ahozko azalpen bat egiteko. Azalpena gure aisialdian egiten dugun zerbaiti buruzkoa edota beste edozein gairi buruzkoa izan daiteke. Azalpen horiek talde osoak entzungo ditu. Ondoren, talde handian azalpenak emateko moduaren inguruan hausnarketa txiki bat egingo dugu. Horretarako, hurrengo galderari erantzungo diegu:

- Zeinen azalpena gustatu zaigu gehien? Zergatik?
 - Zein ahulgune eta indargune ikusi dizkiogu azalpen testu bakoitzari?
 - Zure ustez, nork bildu ditu hobekien ahozko azalpen testuaren ezaugarriak? Zergatik?

3. jarduera: EREDUA AZTERTZEN

Orain txango bat egingo dugu. Kasu honetan, Abbadia jauregia ikustera joango gara Hendaiara eta bisita gidatua egingo dugu. Horretarako, lehenengo, lau taldetan banatuko gara. Baina taldekide bakoitzak eginkizun desberdinak izango ditu. Talde bakoitzeko bik gidaren azalpena emateko moduari erreparatuko diote eta beste biek, aldiz, gaia izango dute aztergai. Taldekide bakoitzak, beraz, bisita egin bitartean, oharrak jaso beharko ditu, gerora, ikasgelan gainerako ikaskideekin jasotakoa partekatzeke. Hona hemen oharrak jasotzeko galdera posible batzuk:

Azalpenari erreparatzeko galderak:

1. Interesa pizteko zein estrategia erabili ditu?
2. Gorputz adierazpena nolakoa izan da? (erreparatu aurpegiari, eskuei etab.)
3. Nola eman dio hasiera diskurtsoari? Nola bukatu du?

¹² 1. jardueran gaiari buruzko ezagutza urria bada, aurretetua aprobetxa daiteke aukeratutako gaiaren inguruko azalpena egiteko.

Gaiari erreparatzeko galderak:

1. Zein ideia azpimarratu ditu?
2. Zein ideia dira bigarren mailakoak?
3. Zein ideia iruditu zaizu interesgarria?

4. jarduera: KONTROL-ZERRENDA ERAIKITZEN

Dagoeneko ikusi dugu zein ezaugarri izan ohi dituzten ahozko azalpen testuek. Orain, kontrol-zerrenda baten bidez, geuk sortuko dugun ahozko azalpenak zein ezaugarri izango dituen zehaztuko dugu. Horretarako, aurretiaz egindako taldeetan bilduko gara eta kontuan hartu beharreko puntuak idatziko ditugu. Kontrol-zerrenda egin ondoren, talde handian gainerako ikaskideekin partekatuko dugu eta besteen ekarpenekin gure zerrenda osatuko dugu.

Kontrol-zerrenda

1. Aurkezpenaren egitura egokia da (sarrera, garapena eta amaiera) eta modu esanguratsuan adierazi du.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.
- 6.
- 7.
- 8.
- 9.
- 10.

5. jarduera: "GERREN ARTEKO PIZKUNDEAN" DOKUMENTALA

Orain "Gerren arteko pizkundean (XIX. mendea-1944)" dokumentala ikusiko dugu. Egon adi dokumentalean zehar; izan ere, aukeratutako gaiaren inguruko informazioa jaso beharko dugu, gero ahozko azalpena egiteko.

6. jarduera: EZTABAIDA DEZAGUN

Dokumentala ikusi ondoren, nor bere taldekideekin elkartuko da dokumentaletik ateratako informazioa partekatzeko. Informazioa partekatu ostean, talde txikietan hurrengo baieztapenei erreparatuko diegu eta horien inguruan hausnartuko dugu. Talde bakoitzeko kide batek esandakoak idatziz jasoko ditu, gero talde handira eramateko.

Baieztapenak

1. Hizkuntza gaurkotzeko eta normalizatzeko ideiak ez ziren hirietan sortu, baserrietan baizik.
2. Euskal Herria isolatuta egon izan da Historian zehar, horregatik biziraun du euskarak.
3. 1936ko gudak indartu besterik ez zuen egin euskara eta euskal kultura.
4. Administrazio elebiduna izatea azken urteetako lorpena izan da.
5. Europako ikertzaileak izan ziren euskara maila zientifikora eraman zutenak.
6. Hizkuntzari buruzko ikerketek eta Lore Jokoek, karlistaden eraginarekin batera, euskal kontzientzia garatzen lagundu zuten.
7. Industrializazioak eta inmigrazioak kaltea ekarri zion euskal komunitateari.
8. Hizkuntza batuaren beharra prentsaren sorrerarekin batera jaio zen.
9. XX. mende hasieran hirietan erdara zen beharrezkoa eta modernoa eta euskara baserrikoa eta baliorik gabekoa.
10. Lehen Mundu Gerrak kalte handiak eragin zituen Iparralden; Hegoaldean Bigarren Pizkundea bizitzen ari ziren bitartean.

7. jarduera: GU ERE IKERLARI

Dagoeneko osatu ditugu ahozko azalpena emango duten taldeak eta, gainera, talde bakoitzak aukeratu du azalpeneko gaia. Orain, talde bakoitzak aukeratu duen gaiaren inguruan ikertzeari ekingo dio. Horretarako, irakasleak emandako iturriez gain, beste batzuk ere beharko ditugu. Ziur etxeok lagun diezaguketela gure ikerketa-lanean eta, bestela, liburutegian edota interneten begira dezakegu.

Ziur informazio pila bat topatuko dugula. Horregatik, informazio guztia fitxetan jasotzea lagungarria izan daiteke, informazioa antolatzeke.

WEB helbidea:

Informazio interesgarria:

Zertarako erabil dezakegu?

(Berritzegune Nagusiak proposatutako "Kirola gora eta behera" SDtik aterata)

8. jarduera: GIDOIA PRESTATZEN

Orain taldeka jarriko gara eta orain arte bildutako informazio guztia gure taldekideekin partekatuko dugu. Daukagun informazio guztia ezagutu ondoren, ahozko azalpenean erabiliko dugun informazioa aukeratuko dugu eta lehenengo eta bigarren mailako ideiak bereizten saiatuko gara. Hori egitearekin batera, hitzaldian erabiliko dugun gidoia prestatuko dugu eta taldekide bakoitzak zer esango duen erabakiko dugu. Horretarako, hurrengo txantiloia beteko dugu:

AHOZKO AURKEZPENA PRESTATZEKO TXANTILOIA

1. PAUSOA: Testuingurua aurreikusi

- Zeintzuk dira aurkezpenaren hartzaileak? Zein ezaugarri dituzte?
- Non egingo duzu aurkezpena? Nolako ezaugarriak ditu espazioak?
- Zenbat denbora duzu aurkezpena egiteko?
- Zein da aurkezpenaren helburua?
- Idatzi esaldi batean zer nahi zenukeen gogoratzea zure entzuleek aurkezpena bukatu ondoren.
- Zein erregistro erabiliko duzu? Batua, euskalki zaindua?

2. PAUSOA: Informazioa bildu eta aukeratu

- Zerrendatu jasotako informazio guztia
- Informazio esanguratsuena bakarrik aukeratu

3. PAUSOA: Gidoia idatzi

- Sarrera: atal honetan testuinguratuko duzu aurkezpena; azalduko duzu zeri buruz hitz egingo duzun eta zein izango den aurkezpenaren ibilbidea.
- Garapena: zenbat azpigai jorratuko dituzu? azpigai horien barruan zein datu, adibide... emango duzu? nola pasatuko zara azpi gai batetik bestera?
- Bukaera: nola adieraziko duzu bukaerarantz iristen ari zarela? laburtuko duzu ideia nagusia? nola? nola agurtuko duzu publikoa? hitza eskainiko diozu galderarik egiteko?

4. PAUSOA: Euskarriak prestatu

- Zein baliabide erabiliko duzu aurkezpena laguntzeko: euskarri elektronikoa? arbela? materialak (umeen lanen bat, panpinen bat, planoren bat...)?
- Zertarako erabiliko dituzu euskarri horiek?
- Gogoratu euskarriak hartzaileari egokitu behar zaizkiola, argiak, erraz irakurtzeko modukoak izan behar direla; bestela, zarata bihur daitezke.

5. PAUSOA: Entseatu

Entseatu, bakarrik egin dezakezu edo beste norbaiten aurrean. Horrek lagunduko dizu denbora ondo kalkulatu duzun ikusten, baliabideek ondo funtzionatzen duten ziurtatzen, nerbioak lasaitzen, eta abar.

(Jendaurreko ahozko aurkezpenen lanketa Unibertsitatean Sekuentzia Didaktiko eta praktika gogoetatsuaren bidez artikulutik hartuta)

9. jarduera: EMOZIOAK LANTZEN¹³

Dagoeneko badaukagu ahozko azalpen bat egiteko adina informazio. Baina edukiaz gain, ez ahaztu ahozko jardunetan hitzezkoak ez diren ezaugarriak ere oso garrantzitsuak direla. Ezaugarri horiek lantzeko, jarduera bi burutuko ditugu.

Hasteko, taldeka pentsa dezagun nola jokatu behar duen gure gorputzak jendaurrean hitzaldi bat eman behar duenean. Ondoren, talde handian, talde txikietan esandakoa komentatuko dugu. Ez ahaztu hemen jasotako elementuak ere kontrol-zerrendari eranstea.

Bigarren jolaserako, eser gaitezen borobilean. Askorentzako, ahozko aurkezpen bat egin beharrak dakarren arazorik handiena jendaurrean hitz egitea izan ohi da. Zergatik? Bada, lotsatu egiten garelako. Eta zergatik lotsatzen gara? Bada, beldurrak ditugulako. Irakur dezagun isilean artikulua hau, eta har dezagun hausnartzeko tartetxo bat.

Lotsa

Lotsa sentimendu bat baino gehiago da. Ezaugarri arrunt batzuk ditu: erantzun fisikoak eta zehatzak (begirada jaistea edota gorritzea), ekintza auresangarriak (ezkutatzea edo besteengandik urruntzea), pentsamendu desatseginak ("penagarria naiz") eta sufrimendu espirituala. Lotsaren bat-bateko sentimenduak gainezka egiten gaituen esperientzia da. Dena ondo doanean eta tupustean zerbait txarra gertatzen denean, lasai mantentzeko nahia izaten dugu. Momentu horretan gure gorputza lankidetzan jardutea nahi dugu baina, hori egin beharrean, sentitzen dugu aurpegia oso bero dagoela, begiek ezin dutela aurrera begira, burua makurtu egiten dela eta bihotz taupadak bizkortu egiten direla. Argi dago, beraz, ezin dugula gure gorputza kontrolatu lotsa dugunean.

Lotsa sentitzen duena ez da batere eroso sentitzen, eta ikustezina izateko gogoia izango du. Normalean, egoera hori estaltzeko eta bertatik ihes egiteko jarrera hartzen dugu. Eta, nahi dugun azkenengo gauza horri buruz hitz egitea da.

Lotsa oso lotuta dago kulpari. Biek eskatzen digute barneko berrikuste bat egitea eta gure bizitzan aldaketak egitea. Gainera, biak probetxugarriak dira modu neurritsuan ematen direnean, baina kaltegarriak izaten dira biziagiak direnean. Lotsaren kasuan, zailagoa da konpontzen, pertsonarekin zerikusi gehiago duelako ekintza zehatzekin baino.

¹³ Jarduera honen osagarri izan daiteke *Erromako Inperioan* SDko 8. jarduera

Umeen kasuan, eguneroko ohiko ekintzetan ager daiteke. Esate baterako, hiru urteko ume bat iturrira hurbiltzen denean txakurrari ura emateko prest, gero harro sentituko da bere lorpenarekin; hala ere, bere aitak oihu egiten dio esanez busti egin dela eta zikin bat dela. Umea, orduan, lotsatuta sentituko da eta kulpaa ere senti dezake. Horrelako egoera asko eta asko daude, guztiak desberdinak direnak. Izan ere, lotsa mota ezberdinak daude eta inoiz ez da lotsa berdina izaten pertsona batean eta bestean. Gehiegizko lotsa izaten denean asko sufritu daiteke.

Baina lotsaren jatorria aurkitzea ez da lan erraza. Izan ere, ez baitago guztiakin erabili daitezkeen iturri finko bat ere ez.

Haatik badaude gehiegizko lotsa osatzeko jarraitu daitezkeen zenbait gomendio:

- Lehenik eta behin, egoeraren kontzientzia hartu
- Lotsa sentitzea batzuetan normala dela onartu
- Norbere buruaren kontzeptua aldatu, norberaren burua errespetatu eta norberaren buruaz harro egon
- Lotsa autoestimaren ordeztuz aldatzen laguntzen dituzten helburu positiboak finkatu

Guzti hori egiten bada, ulermenaren fasea gaindituta egongo litzateke eta ekintzara pasatu ahal izango litzateke.



Aurkezpen saioetan gustora senti gaitzen, ezinbestekoa izango da geure buruarengan konfidantza izatea, baita ingurukoei transmititzea ere. Utz ditzagun beraz lotsak eta beldurrak albo batera, eta egin dezagun *maite zaitut* jolasa.

Korro bat osatuko dugu lurrean eserita eta pertsona bat jarriko da erdian. Kide bati begiratu eta “Maite zaitut, irribarretsu zaudelako” esango dio adibidez. Orduan, irribarretsu dauden denak lekuz aldatu beharko dira eta erdian dagoenak beste norbaiti tokia kendu beharko dio. Leku barik geratzen dena, erdira joango da eta berriz hasi beharko du: “Maite zaitut ausarta zarela, usain gozoa daukazulako, lasaitu egiten nauzulako...”. Edozein ezaugarri balio du, baina positiboa izan beharko du beti.

10. jarduera: AHOZKO AZALPENA EKOIZTEN ETA EBALUATZEN

Iritsi da talde bakoitzaren azalpenak entzuteko ordua. Aurkezpena egiteko unean, gogoan izan orain arte ikasitako guztia. Baina beste lan bat ere eskatuko zaigu. Zuen aurkezpenaz gain, zuen ikaskideen diskurtsoak ebaluatu beharko ditugu orain arte guztion artean osatu dugun kontrol-zerrendaren bidez.

11. jarduera: IKASITAKOARI BURUZ HAUSNARTZEN

Azkenik, sekuentzia didaktikoan zehar ikasi dugunari buruz hausnartuko dugu, galdera hauek abiapuntu hartuta:

1. Sekuentzia Didaktiko honetan ikasitako zer da, nire ustez, interesgarriena?
2. Aurreiritzirik eraisteko balio izan al dit?
3. Zertan aldatu zait Euskal Herriari buruzko begirada?

Azken gogoeta sekuentzia didaktikoaz

❖ IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

I. SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN NONDIK NORAKOAK

Idea Nagusiak	Eraisten diren aurreiritziak
<p>Idea nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Euskal Herriaren isolamendu eza: Espainia eta Frantzia arteko gerrak, karlistadak, etorkinak, industrializazioa...- Euskararekiko kontzientzia hartzea: hizkuntza/Herriaren aldeko erakundeen garapena bai politikoa, nola kulturala. <p>Azpigaiak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Administrazio elebidunaren galera- Europako ikertzaileak: Humboldt, Bonaparte, Webster, Cerquand...- Bonaparteren mapa: euskararen zabalpena, euskalkiak eta intentsitatea.- Abbadie eta Lore Jokoak: Pizkundearen hasiera- Euskal diaspora- Prentsaren sorrera: Eskualduna- Erakundeen sorrera: Euskaltzaleen biltzarra, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, Euskaltzaleak- Ekimen guztiak hirietan sortu ziren, ez baserrietan.- Lehenengo ikastolak- Olerkigintzaren garapena- Batuaren beharra- Industrializazioaren sorrera: etorkinak- Pizkundearen amaiera: gerra.	<ul style="list-style-type: none">- Euskara eta Euskal Herria isolatuta egon dira Historian zehar.- Euskararen aldeko ekimenak ez ziren hirietan sortu, baserrietan baizik.- Administrazio elebiduna azken urteetako lorpena izan da.

II. JARDUERETARAKO AHOLKUAK

1. jarduera: ZER DAKIGU GAIARI BURUZ?

Gaiari buruzko galderak egin eta gero, irakasleak ikusten badu ikasleek gaiaren inguruan duten ezagutza oso urria dela, interesgarria izan daiteke ikasleek gaia aukeratu eta gero, gaiaren inguruko informazioa bilatu eta aurrettestua aukeratutako gaiaren inguruko ahozko azalpena izatea. Hala balitz, aurrettestua izango den ahozko azalpen hori grabatu egingo da. Hala, sekuentzia bukaeran, bata eta bestearen arteko aldeak ikusteko aukera izango dute.

4. jarduera: KONTROL-ZERRENDA ERAIKITZEN

Kontrol-zerrenda osatzeko garaian, irakasleari lagungarri izan dakioko hurrengo autoreek ahozko aurkezpenen inguruan osatu duten gogoeta txantiloia eta ahozko aurkezpenetarako errubrika.

- Garro, E, Pérez, K, Azpeitia, A, Irizar, A. (2012) Jendaurreko ahozko aurkezpenen lanketa Unibertsitatean Sekuentzia Didaktiko eta praktika gogoetatsua bidez. *Ikastari*, 18 (195-219)
(Hemen ere ikugai: <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/ikas/18/18195219.pdf>)

8. jarduera: GIDOIA PRESTATZEN

Gidoia prestatzarekin batera, azalpen testuak dituzten hizkuntz ezaugarriak lantzeko bestelako jarduerak proposa daitezke. Kasu honetan, esaterako, azalpen testuetan hain ohikoak diren testu-antolatzaileak lantzeko jarduera bat proposa daiteke.

9. jarduera: EMOZIOAK LANTZEN

Ariketa hau egiteko oso garrantzitsua da irakaslearen inplikazioa eta motibazioa. Gelako giroari laguntzeko, musika lasaia jarri daiteke eta ariketak egiteko borobilean eseri gaitzke. Irakasleak kide bat gehiago izan behar du jolasean eta parte-hartzaileen arteko hormak apurtzen saiatu behar gara.

III. MATERIAL OSAGARRIA

Gaia	Lotura
Abbadie eta Lore Jokoak	http://www.eke.org/eu/fitxategiak/lore-jokoak-iruritan (Lore jokoak: Iruritako egitaraua) http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_fLB1&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_count=1&articleId=25124&groupId=10138 (X. Kerejetari elkarrizketa) http://www.eke.org/eu/kultura/lekukoak/lekuko/abbadia-lonca
XIX. mendeko literatura	http://www.euskara.euskadi.net/r59-luredir/es/contenidos/articulo/c0301/eu_d0301016/0301016.html
Ipar EH XIX.mendean	http://www.idazleak.org/euskara/euskal-literaturaren-historia

Euskara batua eta Euskaltzaindia	http://www.euskara.euskadi.net/r59-luredir/es/contenidos/articulo/c0508/eu_d0508003/0508003.html
Sabino Arana	http://www.euskaltzaindia.org/index.php?option=com_content&Itemid=55&catid=78&id=48&lang=es&view=article http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/45/45011041.pdf (Euskaltzaindia eta euskararen arautzea)
Euskal Diaspora	http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/56091.pdf http://euskaldiaspora.com/index.html http://www.eke.org/eu/kultura/euskal_herria/euskal_diaspora http://www.argia.com/euskal-diaspora http://www.eke.org/eu/kultura/bideo_bilduma/hamaika_zubi (dokumentala) http://www.guknosotros.com/ (dokumentala)
Industrializazio garaia	http://www.ostadar.net/industrializaziogaraia/industria/industrializazioa.html http://www.euskara.euskadi.net/r59-luredir/es/contenidos/articulo/c0201/eu_d0201028/0201028.html
Euskal prentsaren sorrera	http://www.hemeroketa.com/argi.htm http://www.euskara.euskadi.net/r59-luredir/es/contenidos/articulo/c0201/eu_d0201025/0201025.html http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/es/contenidos/informacion/eu_mintzagai_bilduma_aurkezpen/es_aurkezp/adjuntos/EHprentsa.pdf
Santa Kruz apaiza	https://www.youtube.com/watch?v=LeFO_9r7buE
Zergatik landu adimen emozionala?	http://laskorainadimenemozionala.ikasblog.net/
Lotsatia naiz, eta zer?	http://www.elkar.com/es/ficha_del_libro/A000000194594

IV. TXANGOAK

Txangoa	Informazioa
Hendaia: Abbadia jauregia	http://www.hendaia-turismoa.com/eu/page/chateau-observatoire-abbadia
Ormaiztegi: Zumalakarregi museoa	http://www.zumalakarregimuseoa.net/
Getaria: Balentziaga museoa	http://crislobalbalenciagamuseoa.com/index.php?idioma=2
Aramaio: Santa Kruz apaizaren koba	http://www.argia.com/argia-astekaria/2302/aramaio-araba

6. Mundua osatzen (1944 - gaur egunera)

*Oteiza, Aresti nahiz Mitxelena,
Lertxundi, Laboa, Lete...
Zuen sorkuntzek gure sustraiei
argia eman diete,
eta sustraiak birsortuz gero
edozer lor genezake,
nahiz eta gure historiaren
orriak saminez bete,
beste hainbeste edo gehiago
baitauzkagu idazteke.*

AZKEN XEDEA:

Sekuentzia didaktiko honen amaieran, ikasle bakoitzak argudio testu bat idatzi beharko du. Ondoren gelakideen artean horretarako sorturiko blogean publikatuko ditugu lan guztiak nahi duenarentzat eskuragarri egon daitezen. Argudio testu horiek berrogeiko hamarkadatik gaur egunera arte euskal kulturaren eta historiaren inguruan sortu diren aurreiritzi okerrak eraisteko, nahiz etapa horri dagokion gairen bati buruzko arrazoiketa egiteko erabili beharko ditugu. Gaien banaketa denon artean adostuko dugu errepika ez daitezen.

1. jarduera: ZER DAKIGU GAIARI BURUZ?

Testugintzan murgildu baino lehen, egin dezagun lehen hurbilpena aurrerago sakonduko ditugun gaietara. Ondorengo lerrootan, aurrezagutzak aktibatzeke galdera sorta batzuk ditugu. Hasteko, lau taldetan banatuko gara eta idazkari bana izendatuko dugu. Jarraian, talde bakoitzak galdera sorta baten inguruan gogoeta txiki bat egingo du. Ariketa bukatzeke, talde handian elkartuko gara ostera ere eta idazkariak beraien taldeetan jasotako ideiak kontatuko dizkie ikaskideei. Gogoratu, aurrerantzean egin beharreko lanketari begira, dakiguna adierazteke bezain garrantzitsua dela hutsuneak non ditugun identifikatzea.

1. Gerra ostea Euskal Herrian

1. 1939tik 1975era, hego Euskal Herria Francoren diktadurapean egon zen. Zein zen garai horretan euskara eta euskal kulturaren egoera?
2. Nor izan zen Elvir(a Zipirtria?)
3. Zer dakizue *Ez dok amairu* taldeari buruz? Aipatuko al zenituzkete partaide batzuen izenak?

2. Euskararen auziaz

1. 1968an Txilardegi, Aresti, Mitxelena eta beste hainbat euskal idazle elkartu ziren Arantzazun hizkuntzaren trataeraz eztabaidatzeko. Zergatik edo zertarako sortu zen euskara batua?
2. Zein desberdintasun dago hizkuntza eredu estandarraren eta lagunartekoaren artean?
3. Gaur egun Euskal Herria hiru administraziotan banaturik dugu: batetik Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, bigarrenik Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoa eta hirugarrenik Nafarroa garaia. Zer dakizue euskarak lurralde bakoitzean duen ofizialtasunari buruz?

3. Aurrerapausuak arlo ezberdinetan

1. Laurogeiko hamarkadatik aurrera herri ekimenez sorturiko euskararen aldeko elkarte, mugimendu eta komunikabideak ugaltu egin ziren. Zeintzuk ezagutzen dituzue?
2. Azken urte hauetan euskara alor ezberdinetan lekua hartzen joan da eta azpimarratzekoa da interneten izan duen hedapena. Zerrendatuko al zenituzke gai ezberdinen inguruan (zientzia, teknologia, aisialdia, kultura, albisteak, hizkuntza...) sarean euskaraz dauden webguneak?
3. Bertso munduan ere aldaketa handiak izan dira azken hamarkadotan. Bereiziko al zenituzkete bertsolaritza tradizionalaren eta modernoaren ezaugarriak? Zein bertsolarik osatzen dute etapa bakoitza?

4. Argudio testuei dagokienez

1. Zein da argudio testu baten komunikazio xedea?
2. Zer da *autoritate argudioa*?
3. Egunerokoan non aurkitu ditzakegu argudio testuen ereduak?

2. jarduera: ARGUDIO TESTUA EGITEN IKASTEN

Dagoeneko gaien kokatu garenez gero, ekin diezaiozun lanari. Ondorengo jardueran, argudio testu bat eraiki beharko dugu generoari buruz dakigunetik abiatuz. Modu honetan, argudiaketan ditugun indarguneak eta ahulguneak identifikatuko ditugu eta gure ikaste premien arabera antolatu ahal izango dugu gaia aurrerantzean.

Jo dezagun, eremu nagusiki erdaldun batean (gaztelera nahiz frantsesduna) bizi garen guraso euskaldunak garelara. Gure seme-alabek ez dute bizi garen herrian euskaraz eskolatzeko aukerarik eta Hezkuntza Sailera gutun bat idaztea pentsatu dugu; haurren hizkuntza eskubideak defendatzeko eta D eredu aldarrikatzeke. Idazketari ekin aurretik, irakur dezagun antzeko egoera bat bizi izan duten gurasoen egoera eta azpimarra ditzagun gure testurako baliagarriak izan daitezkeen ideiak.

Norbere herrian D ereduan ikasteko eskubidea

Beren seme-alabak herriko eskolan D ereduan ezin dituztela matrikulatu salatu dute Murgiako hainbat gurasok Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren eskutik. Behatokiko zuzendari den Garbiñe Petriatik azaldu duenez "onartezina da hiru hamarkada ondoren, Araban, norberaren herrian D ereduan ikasteko eskubidea urratzea, guraso batzuek beren seme-alabak beren herrian D ereduan ezin matrikulatzea". Arazoa ez da berria, hainbat urtetan beren seme-alabek D ereduan ikastea nahi zuten gurasoek haurrak errepidean jarri behar izan dituzte, 7 kilometrora dagoen Izarrara bidaliz.

Natxo Ruiz-ek (gurasoetako batek) adierazi duenez, mundu guztiak bezala, beraiek ere beren seme-alabentzat onena nahi dute eta ondorioz D ereduan matrikulatu nahi dituzte. Azaldu duenez, urte hasieran, beren 2 urteko txikia lehen aldiz eskolatu behar zutela eta, Murgiako Virgen de Oro eskolara joan ziren matrikula egitera. Matrikula egiteko beharrezkoa zen dokumentazioa eraman zuten eta han bertan azaldu zioten zuzendariari beren lehenengo aukera D eredua zela. "Gure harridurarako Murgiako eskolan ez zegoela gure semearentzat nahi genuen eredua hautatzerik erantzun ziguten, gure semeak ezin zuela bere herrian D ereduan ikasi" azaldu du Ruiz-ek. Zuzendariak azaldu zenez, semeak D ereduan ikas dezan nahi badute Izarrara joan beharko dute, beraien herritik 7 kilometrora.

Egoera horretan, beren hizkuntza-eskubideak urratuak zirela iritzita, Hizkuntz Eskubideen Behatokira jo zuten laguntza eske. Behatokiko zuzendari Garbiñe Petriatik azaldu duenez, "euskara jakitea bertan lan egin eta bizitzeko bidea ere bada, integrazio eta elkarbizitzarako bitartekoa eta gaur egun, euskara ikasteko, euskara jakiteko berme bakarra D ereduan ikastea da. Are gehiago, euskara normalizatu nahi badugu herritar euskaldunak hemen gera daitezen behar dugu, langile euskaldunak behar ditugu, mediku, dendari, abokatu, administrari... euskaldunak". Behatokiaren esanetan, beraien eskaera oso zehatza eta eskuragarria da: Murgian bertan D ereduan ikasteko matrikulatzen diren Haur Hezkuntzako lehen mailako ikasle horiei eskubidea bermatzea.

www.kontseilua.org

3. jarduera: EREDUA AZTERTZEN

Sekuentzia Didaktikoan zehar landuko ditugun gai historiko nahiz linguistikoetara lehen hurbilpena egin ondoren, argudio testuak idazteko trebatzen hasiko gara. Bide horretan, eredu bat aztertzea izango dugu lehen urratsa.

Lehenik eta behin, irakur dezagun arretaz frankismoak euskarari nola eragin zion azaltzen duen argudio testu hau. Ondoren, bi lan bete beharko ditugu: batetik, testuaren atal nagusiak identifikatu eta adieraztea: tesia, argudioak, ondorioak... Eta bestetik, irakurketan zehar deigarrien iruditu zaizkigun ideiak azpimarratzea.

Frankismoa eta euskara

Gure historiaren orrialde horituek, literaturako hainbat pasartek nahiz han eta hemen aurki daitezkeen toponimoek islatzen dutenez, duela mende batzuk gaur egun baino askoz eremu zabalagoa zuen euskarak. Arrazoi ezberdinengatik, eremu hori estutzen joan zen urteekin baina zalantzarik gabe, frankismoa izan zen hegoaldean euskararen erabilera gehien kaltetu zuen faktorea.

1936an diktadura ezarri zuenean, katolizismoa eta nazionalismo espainiarra aldarrikatu zituen Francisco Francok. Ondorioz, nazio euskaldun, katalan eta galegoak erabat ukatu eta zokoratu zituen; baita berauen hizkuntzak ere. Orduko irakasle eta agintarien ustez, euskara baserriarren hizkuntza zabar eta zaharkitua baino ez zen. Eskola guztiek erdara hutsean funtzionatzen zutenez, ikasleak umiliatu egiten zituzten euskaraz mintzatuz gero: ikaskideen aurrean zigortuz, eskoletatik kanporatuz edo maisu-maistrek erabiltzen zuten eratzun gogorrarekin buruan kolpatuz.

Errepresio hura nabarmena zen kalean ere; Galizian eta Katalunian gertatu bezala, gurean ere debekatuta baitzeuden euskal izenak, literatura, bertsolaritza edota prentsa, besteak beste. Urte haietan guztietan euskal hiztunek jasandako zigor eta gutxiespenen eraginez, esparru pribatuenetara mugaturik geratu zen euskararen erabilera beldurraren-beldurrez. Koldo Zuazo filologoaren arabera, edozein hizkuntzarentzat hain tresna garrantzitsuak diren hezkuntza eta kultura ukatuta, 1975ean frankismoa bukatu zenerako euskarari egindako kaltea atzera bueltarik bakoa zen; belaunaldi oso batek galdu baitzuen ama-hizkuntza eta beste askok izan baitzuten ez ikasteko aitzakia.

Harrezkero, euskara zentzu askotan biziberritu bada ere, asko eta asko dira hamarkada beltz haietan transmisioaren katea eten, eta hizkuntza berreskuratu ez duten euskaldunak. Faktore guzti hauek zirela medio, euskara hizkuntza gutxitu bilakatu zen eta izaera horrekin jarraitzen du gaur egun ere.

www.euskalkultura.wordpress.com
(Testu moldatua)

Testua aztertutakoan, bikoteka elkartuko gara eta landutakoa partekatuko dugu alderdi linguistikoari nahiz historikoari dagokienez. Honats gogoeta hori egiteko jarrai ditzakegun puntuak:

- Zein da testuaren komunikazio xedea?
- Zein da testuaren egitura orokorra?
- Atalen eta paragrafoen banaketa bat al dator?
- Zein da tesi nagusia?
- Zein argudio ematen ditu tesia arrazoitzeko?
- Argudio mota ezberdinak al daude? (Autoritate argudioa, konparazioan oinarritutakoa, adibideetan oinarritutakoa, kontrargudioa...)
- Testu antolatzaileak erabiltzen al du? Nolakoak?
- Testuan aipatzen denaz gain, zer gehiago dakizu frankismoari buruz?
- Ezagutzen al duzu garai hartan euskara galdu zuenik?

Jarduera hau borobiltzeko, talde handian elkartuko gara ostera ere eta irakaslearen laguntzaz, irakurketatik ateratako ondorio nagusiak adostuko ditugu. Ohar bidez jaso ditzakegu nahi izanez gero.

Oharrak

4. jarduera: KONTROL-ZERRENDA ERAIKITZEN

Argudio testuek izan ohi dituzten elementu nagusiak aztertu ondoren, zehaztu dezagun guk sortuko ditugun testuek zein ezaugarri izan beharko dituzten. Horretarako, kontrol-zerrenda bat osatuko dugu. Lehenik eta behin, launaka elkartuko gara eta talde bakoitzak hamar ezaugarri zerrendatuko ditu gutxienez.

Ondoren, talde handira itzuliko gara eta guztion artean adostuko ditugu gure argudio testuek izan beharreko hamar-hamabi ezaugarriak. Idazketa prozesuari laguntzeaz gain, ariketa honek gure ikaste-helburuak zehazteko tresna bat eskainiko digu.

Kontrol-zerrenda

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.
- 6.
- 7.
- 8.
- 9.
- 10.

5. jarduera: KOEBALUAZIOA

Dagoeneko definitu ditugu gure argudio testuek izan beharko lituzketen ezaugarriak, baita ezaugarriok kontrol-zerrenda batean antolatu ere. Zerrendaturikoa baliagarria den ala ez frogatzeko, bikoteka elkartuko gara eta *D eredu*a, *gure hizkuntza eskubidea* aurretestua berrartuko dugu. Kontrol-zerrenda abiapuntutzat harturik, gure bikotekidearen testua zuzenduko dugu eta ondoren elkarrekin partekatuko ditugu ikusitakoak. Gogoan izan bata-bestearen testuetan aurkituriko ahulguneak aipatzea bezain garrantzitsua dela indarguneak aipatzea.

6. jarduera: PUZLEA OSATZEN

Testuinguru historikoan gehiago barneratzeko, zer hoberik jolas bat baino? Jarduera honetan irakasleak txartel sorta bat jarriko du ikusgai. Txartel hauetan XX.mendeko sortzaile euskaldunen argazkiak, izenak, testu zatiak eta bestelako datuak aurkituko ditugu. Hiru taldetan banatuko gara eta gure lana txarteltxoak ordenatuz puzzlea osatzea izango da.

Hasteko, talde bakoitzak eremu artistiko bateko autoreak eta ezaugarriak identifikatu beharko ditu; kantagintza, bertsolaritza edo literaturakoak hurrenez-hurren. Ondoren, eremu bakoitzean esparru tradizionala eta modernoa bereizi beharko dira. Honats puzzlea osatzeko eredu:

KANTAGINTZA/ BERTSOLARITZA/ LITERATURA			
TRADIZIONALA		MODERNOA	
Ezaugarriak		Ezaugarriak	
Autoreak		Autoreak	
Lanak		Lanak	

Txartel guztiak antolatutakoan, talde txiki bakoitzak ordezkari bat edo bi aukeratuko ditu talde handian elkartzen garenean gainontzeko ikaskideei ikusitakoaren berri labur-labur eman diezaien. Hartara, denok jasoko dugu hiru puzzleetako informazioa.

7. jarduera: ESKEMA EGITEN

Orain artean buruturiko jardueretan, argudio testuen egitura eta osagai ezberdinak aztertu ditugu eredu bidez. Orain, urrats bat gehiago emanez, jarduera honetan azken ekoizpenean baliagarria izango zaigun alderdi bat landuko dugu: ideien antolaketa.

Horretarako, balizko argudio testu baten eskema bana idatziko dugu 6. jardueran ikasitakotik abiatuz. Gure lana, aurreko jardueran landuriko datuak ondorengo baieztapenok sustengatzeko argudio bilakatzea izango da; lehen eta bigarren mailako ideiak ondo bereiztuz betiere. Datu horiek osatzeko informazio gehigarria bila dezakezue. Hona hemen eremu bakoitzean garatu beharreko gaiak:

- a) Hirurogeiko hamarkadan euskal kantagintza berpiztu egin zen eta arrakasta handia lortu zuen.
- b) Bertsolaritza masa fenomeno bilakatu zen laurogeiko hamarkadatik aurrera.
- c) Euskal literaturan norabide aldaketa nabarmena izan zen hirurogeiko hamarkadan.

Eskema

8. jarduera: "MUNDUA OSATZEN" DOKUMENTALA IKUSTEN ETA GAIA ZEHAZTEN

Ondorengo minutuetan, euskarak eta euskal kulturak gerra ostetik gaurdaino izan duten bilakaerari buruzko dokumental bat ikusiko dugu. Proiektzioarekin hasi aurretik, errepara diezaiozun bideoaren ideia nagusiak biltzen dituen beheko eskemari. Gelakideok lau multzotan banatuko gara eta multzo bakoitzak lau puntu hauetariko bati buruzko oharrak jaso beharko ditu:

EUSKARA JENDEA: MUNDUA OSATZEN

1. Euskal Herriaren isolamendu eza: etorkinak, kultur mugimenduak, gerrak...
 - Gerren ondorioak: sarraski fisiko, politiko eta kulturala.
2. Tradiziotik modernitaterako jauzia: iraupenaren gakoa.
 - Berrogeita hamar eta hirurogeiko hamarkadetan, oztopoen gainetik pizkundea.
 - *Ez dok amairu*
 - Bertsolaritza
3. Euskal kultura euskaldunok garai bakoitzean egiten dugun kultura da.
 - Kultura, edozein gizarteren nortasunaren isla da.
4. Hizkuntzen ekologia: euskararen normalizazioa.
 - Euskara Batuaren sorrera.
 - Irakaskuntza: Ikastolen sorrera, gau eskolak...
 - Literatura/ liburugintza
 - Euskarazko komunikabideak
 - Lehen euskara elkarteak

9. jarduera: EZTABAIDA DEZAGUN

Dokumentala ikusi ondoren, nor bere taldekideekin eseriko da jasotako informazioa partekatu eta osatzeko. Jarraian, talde bakoitzak dagokion aurreiritzi sorta bana aztertuko du eta horiek eraisten ahaleginduko gara gaian zehar jasotako informazioa baliatuz. Gogoratu taldekide bat idazkari izendatzeaz; lehenengo gogoeta honen ondoren talde handian elkartuko baikara ideia guztiak partekatzeko eta eztabaidatzeko. Izan gogoan, eztabaida esanguratsua izan dadin, ez duela balio ideia solteak botatzeak; argudiatu egin behar dira.

1. Euskal Herriaren isolamendu eza

- Euskara eta Euskal Herria isolatuta egon dira historian zehar.
- Gerra zibilak Euskal Herriko gune batzuetan bakarrik utzi zituen ondorioak.

2. Tradiziotik modernitatera

- Gerra osteko zentsuraren eraginez euskal kantagintzan ez zen mugimendu handirik egon.
- Bertso mundua tradizionala eta maskulinoa da.
- Euskal literaturako idazle modernoak azken hamar urteotakoak dira. Hortik atzera daudenak tradizionalak.

3. Kultura nortasunaren isla

- Kultura aisialdirako sortua da, ez da herri baten nortasunaren isla.
- Euskal kultura ez da modernoa.

4. Hizkuntzen ekologia

- Gaur egun euskaldunon hizkuntza eskubideak erabat errespetatzen dira.
- Euskara batuak ez du ezertarako balio.
- Ikastolen sorrera garrantzitsua izan zen hezkuntzan, baina ez zuen inolako eraginik izan euskararen erabileran.
- Erdaldun batek esan dizu: “Zertarako ikasiko dut euskaraz, erdaraz bizi banaiteke?”

10. jarduera: GU ERE IKERLARI

Dagoeneko ondo menderatzen ditugu argudio testuen eskakizun nagusiak eta azterturiko testuinguru historikoaren nondik norakoak. Jarduera honetan gure azken ekoizpena izango den testuaren gaia zehaztuko dugu eta informazioa biltzen hasiko gara irakasleak emandako iturrietatik, internet bidez, etxean galdetuta, etab.

Gogoan izan ondotestuek Sekuentzia Didaktikoan zehar landutako gaiekin (aurreiritziak lehenestearekin batez ere) loturaren bat izatea lehenesten dugula. Dokumentalak iradoki digun edozein ideiatatik abiatu gaitzke eta nahi izanez gero, 9. jardueran proposaturiko kontsignak erabil ditzakegu azken ekoizpenerako.

11. jarduera: TESTUA EKOIZTEN ETA ARGITARATZEN

Azkenik, orain artean ikasitako urratsei jarraituz, argudio testu bana eraiki behar dugu. Gaia hautatu ondoren, eskema bana egingo dugu eta jarraian idazketari ekingo diogu, kontrol-zerrenda aintzat hartuta betiere.

Testuak idatzitakoan, irakasleak zuzenketak egingo dizkigu behar izanez gero. Azken atonketen ondoren eta proiektua bukatzeko, gure idatziak blogean publikatuko ditugu eta interesatuta egon daitezkeenei helaraziko diegu gure lana.

Azken ekoizpenerako eskema

12. jarduera: IKASITAKOARI BURUZ HAUSNARTZEN

Proiektu hau borobiltzeko, egin dezagun azken gogoeta bat sekuentzia didaktiko honetan ikasi dugunari buruz eta idatz ditzagun ideia horiek labur-labur. Honats abiapuntuak:

- a) Sekuentzia Didaktiko honetan ikasitako zer da, nire ustez, interesgarriena?
- b) Aurreiritzirik eraisteko balio izan al dit?
- c) Zertan aldatu zait Euskal Herriari buruzko begirada?

Azken gogoeta sekuentzia didaktikoaz

❖ IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

I. SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN NONDIK NORAKOAK

Idea nagusiak	Eraisten diren aurreiritziak
<p>1. Euskal Herriaren isolamendu eza: etorkinak, kultur mugimenduak, gerrak...</p> <ul style="list-style-type: none">- Gerren ondorioak: sarraski fisiko, politiko eta kulturala. <p>2. Tradiziotik modernitaterako jauzia: iraupenaren gakoa.</p> <ul style="list-style-type: none">- Berrogeita hamar eta hirurogeiko hamarkadetan, oztopoen gainetik pizkundea.- <i>Ez dok amairu</i>- Bertsolaritza <p>3. Euskal kultura euskaldunok garai bakoitzean egiten dugun kultura da.</p> <ul style="list-style-type: none">- Kultura, edozein gizarteren nortasunaren isla da. <p>4. Hizkuntzen ekologia: euskararen normalizazioa.</p> <ul style="list-style-type: none">- Euskara Batuaren sorrera.- Irakaskuntza: Ikastolen sorrera, gau eskolak...- Literatura/ liburugintza- Euskarazko komunikabideak- Lehen euskara elkarteak	<ul style="list-style-type: none">- Euskara eta Euskal Herria isolatuta egon dira historian zehar.- Gerra osteko zentsuraren eraginez euskal kantagintzan ez zen mugimendu handirik egon.- Bertso mundua tradizionala eta maskulinoa da.- Euskal literaturako idazle modernoak azken hamar urteotakoak dira. Hortik atzera daudenak tradizionalak.- Kultura aisialdirako sortua da, ez da herri baten nortasunaren isla.- Euskal kultura ez da modernoa.- Ikastolen sorrera garrantzitsua izan zen hezkuntzan, baina ez zuen inolako eraginik izan euskararen erabileran.

II. JARDUERETARAKO AHOLKUAK

3. jarduera: EREDUA AZTERTZEN

Ikasleen mailaren arabera, zein argudio mota dauden eta nola aurkitu ditzaketen esan diezaiekezue.

1. Kontrargudioa
2. Adibideetan oinarrituriko argudioa.
3. Konparazioan oinarrituriko argudioa.
4. Autoritate argudioa.

Bestalde, zuzenketak egitean, gogoratu alderdi linguistikoari buruz hitz egitea bezain garrantzitsua dela ikasleei gaiaz duten iritzia emateko tartea uztea.

Jarraian dagoen testuan egitura banatuta eta argudioak azpimarratuta daude:

Testuaren azterketa

Frankismoa eta euskara

{Gure historiaren orrialde horituek, literaturako hainbat pasartek nahiz han eta hemen aurki daitezkeen toponimoek islatzen dutenez, duela mende batzuk gaur egun baino askoz eremu zabalagoa zuen euskarak. Arrazoi ezberdinengatik, eremu hori estutzen joan zen urteekin baina zalantzarik gabe, frankismoa izan zen hegoaldean euskararen erabilera gehien kaltetu zuen faktorea. } **Sarrera (tesia)**

{1936an diktadura ezarri zuenean, katolizismoa eta nazionalismo espainiarra aldarrikatu zituen Francisco Francok. Ondorioz nazio euskaldun, katalan eta galegoak erabat ukatu eta zokoratu zituen; baita beraien hizkuntzak ere. **Orduko irakasle eta agintarien ustez, euskara baserritarren hizkuntza zabar eta zaharkitua baino ez zen.** Eskola guztiek erdara hutsean funtzionatzen zutenez, **ikasleak umiliatu egiten zituzten euskaraz mintzatuz gero: ikaskideen aurrean zigortuz, eskoletatik kanporatuz edo maisu-maistrek erabiltzen zuten eraztun gogorarekin buruan kolpatuz.**

Errepresio hura nabarmena zen kalean ere; **Galizian eta Katalunian gertatu bezala, gurean ere debekatuta baitzeuden euskal izenak, literatura, bertsolaritza edota prentsa, besteak beste.** Urte haietan guztietan euskal hiztunek jasandako zigor eta gutxiespenen eraginez, esparru pribatuenetara mugaturik geratu zen euskararen erabilera beldurraren-beldurrez. **Koldo Zuazo filologoaren arabera, edozein hizkuntzarentzat hain tresna garrantzitsuak diren hezkuntza eta kultura ukatuta, 1975ean frankismoa bukatu zenerako euskarari egindako kaltea atzera bueltarik bakoa zen; belaunaldi oso batek galdu baitzuen ama-hizkuntza eta beste askok izan baitzuten ez ikasteko aitzakia.** } **Argudiaketa**

{Harrezkero euskara zentzu askotan biziberritu bada ere, asko eta asko dira hamarkada beltz haietan transmisioaren katea eten, eta hizkuntza berreskuratu ez duten euskaldunak. Faktore guzti hauek zirela medio, euskara hizkuntza gutxitu bilakatu zen eta izaera horrekin jarraitzen du gaur egun ere. } **Bukaera (ondorioa)**

www.euskalkultura.wordpress.com
(Testu moldatua)

5. jarduera: KOEBALUAZIOA

Argi azaldu ikasleei koebaluazioa zertan datzan eta azpimarratu elkarren ahulguneak identifikatzea bezain garrantzitsua dela indarguneak identifikatzea. Horrez gain, ikasleak bikoteka daudenean, jarri arreta egiten daudenari. Zuzenketaren bat behar izanez gero egizu, baina bestela utzi lan autonomoa egin dezaten.

6. jarduera: PUZLEA OSATZEN

Ondorengo orrialdeotan, puzlearen piezak diren taula eta argazkiak dituzu. Fotokopiatu eta zatikatu egin ditzakezu. Koloreka antolatuta daude puzlea errazteko. Ikasle taldearen arabera moldatu daiteke zailtasuna: fitxa guztiak nahastuta emanez edo nolabait multzokatuta, datuak gehituz edo kenduz... Horrez gain, gogoratu ikasleek ezaugarri bat edo beste non kokatu duten adieraztean, arrazoitu egin behar dutela.

Dokumentalak egiten duen bezala, azpimarratu euskal kulturaren irekidura eta jarraiduraren arteko oreka (tradiziotik berrikuntzarako jauzia) alor askotan eman dela.

1. BERTSOLARITZA:



Txirrita



Balendin Enbeita



Xabier Amuriza



Andoni Egaña



Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga

BERTSOLARITZA			
TRADIZIONALA		MODERNOA	
Ezaugarriak	- Baserri munduan eta herri txikietan batez ere.	Ezaugarriak	- Bertsolaritza masa fenomeno bilakatu.
	- Denak gizonezkoak eta euskaldun zaharrak.		- Bertso Eskolak sortu eta bertsotan ikasteko aukera edonori eskaini; euskaldun zahar nahiz berriak, haurrak, helduak...
	- Bertso afarietan eta herrietako jaietan kantatzen zuten.		- Bertsolarien profila aldatu: gazteak, emakumeak,
	- Politikaz, hizkuntzaz, baserriko animaliez etab. aritzen ziren.		

	- Bertso paperek arrakasta handia izan zuten.		<p>“hiritarrak” ugaritu.</p> <p>- Politikaz, hizkuntzaz, gai sozialez etab. hitz egiten den bezala, sentimenduez eta emozioez ere bai.</p> <p>- Komunibideetan bere txokoa lortu du (prentsan, interneten, telebistan, irratiak...).</p> <p>- Formatu ezberdinetako saioak egiten dira: saio musikatuak, poteoak, afariak, antzerkiak...</p> <p>- Txapelketek oiartzun handia dute.</p>
Autoreak	Baserra, Uztapide, Txirrita, Lazkao Txiki, Xalbador eta Mattin, Balendin Enbeita...	Autoreak	Xabier Amuriza, Andoni Egaña, Xebastian Lizaso, Unai Iturriaga, Iratxe Ibarra, Jon Sarasua, Maialen Lujanbio...
Lanak	<p><i>Mila zortzireunirurogeita zazpigarrenengo urtian lehenengo trena ikusi nuen Españiyako parian; bide pixka bat bistan pasa ta iñoiz sartua lurpian, perraberriyak erantsi dizte andikan orain artian.</i></p> <p>Txirrita</p>	Lanak	<p><i>Kaixo Maialen: zermoduz? Oroimenadaukatzugan, presente zauzkadalako neremendiabenturan. Zorioneangabiltza mendiarekinloturan; badakizu, betigisa, nahitaezinaren mugan. Makalukogailurhorrek gujartzengaituliluran; etzirakoegongogera gailurrarekinjoskuran. Harzazumuxuberobat,</i></p>

			<p><i>jarrikonfiantzagugan. Zeinbero zen muxuata nikzeinenhotz hartu dudan.</i></p> <p>MaialenLujanbio</p>
--	--	--	--

2: KANTAGINTZA:



Ez dok amairu



Sakabi eta Egañazpi



Maurizia Aldeiturriaga



Mixel Labeguerie

KANTAGINTZA			
TRADIZIONALA		MODERNOA	
Ezaugarriak	<ul style="list-style-type: none"> - Gehienak erromeria giroko trikitilariak ziren. - Kopla eta bertso zaharrak kantatzen zituzten. - Jai giroan aritzen ziren. - Trikitixa, akordeoia, panderoa, alboka, txistua... 	Ezaugarriak	<ul style="list-style-type: none"> - Kantagintza aldarrikapenerako tresna. - Musikariak kanpoko artistei begira: Atahualpa Yupanki, Paco Ibañez, Kataluniako Nova Canço... - Kantagintza tradizionala berritu zuten. - Letrak zabaldu eta sakondu: egoera politikoaz, sentimenduez, arazo sozialez... - Kontzertu jendetsuak ematen hasi ziren.
Autoreak	Leon eta Maurizia, Sakabi eta Egañazpi, Etxahun Iruriko, Fasio...	Autoreak	<p><i>Ez dok amairu:</i> Laboa, Lete, Iriondo, Lertxundi, Artze...</p> <p>Lekuona, Labeguerie, Anje Duhalde, Niko Etxart...</p>
	<i>Txikitxu polit hori</i>		<i>Zenbat gera lau bat, hiru</i>

Lanak	<i>zer dozu nigarrez? (Bis) Aitek tabernarako dirurik emon ez ai oi ai dirurik emon ez! Txikitxu polit hori zer dozu nigarrez?</i>	Lanak	<i>bost zazpi? Zer egin degu? Ezer ez. Zer egiten degu? Alkar jo. Zer egingo degu? Alkar hil. Hori ez! Hori ez!</i>
	Bizkaiko koplak zaharrak		Benito Lertxundi

3. LITERATURA:



Lauaxeta



Lizardi



Aresti



Urretabizkaia



Txillardegui

LITERATURA			
TRADIZIONALA		MODERNOA	
Ezaugarriak	<ul style="list-style-type: none"> - Bakoitzak bere euskalkian idazten zuen. - Poesia eta bertso-gintza nagusitzen ziren. - Amodioaz, naturaz, abertzaletasunaz eta hizkuntzaz aritzen ziren batez ere. 	Ezaugarriak	<ul style="list-style-type: none"> - Euskara batuan idazten hasi. - Poesia soziala indartu. - Euskal eleberrigintza modernoaren hastapenak. - Ordurarte ateratzen ez ziren gaiak: abortoa, borroka armatua, sexualitatea, emakumeen sentipenak... - Emakumezkoak ere argitaratzen hasi.
Autoreak	Lauaxeta, Lizardi, Orixe...	Autoreak	Aresti, Txilardegi, Mitxelena, Mirande, Saizarbitoria, Urretabizkaia, Lasa...
Lanak	<p><i>Asaba zaarrenbaratza, untzadunormekesia, eguzkiak leen maitea...</i></p> <p><i>Otzaldizoro baten itzuli, yokanagokikatea.</i></p> <p><i>Yokanagokikatea, ate gorrizurezkoa, eurizaarrekusteldua; marraskilloekbidebiurri dirdaitsuezapaindua</i></p>	Lanak	<p><i>Txemak alde eginez gero, aski dut Antxonon begietako kolorea ikustea, neure humorea zein den ulertzeko. Zutik, lurrean kondenatu zaren langile tristea. Antxonek ondo lo egingo badu, zazpi-zortzi- bederatzi, majia-borajia, zoriontsu behar dut izan. Barrutik hutsa eta ustela sentitzen naizenean, edo nerbiosa eta agresiba sentitzen naizenean, erreibindikatzeko baina ez bizitzen ikasi duen Txemarik gabeko ama,</i></p>

	<i>Bai-bainun amona xaarbat zazpibegikobaratzai; deadarkariyaioa marrubi-lapurnenkusanetan... Biziote-dutgaxoa?</i>		<i>Antxonentzat trankil, baketsu eta bizirik azaldu behar.</i> Arantxa Urretabizkaia (Zergatik Panpox)
	Xabier Lizardi		

7. jarduera: ESKEMA EGITEN

Ikasleei datuak argudio bihurtzearen garrantzia azaldu eta lehenengo eta bigarren mailako ideiak bereizteko eskatu. Eskema mota ezberdinak erabil ditzakete: gezien bidez, gidioen bidez, zenbakizkoak...

Jarduera hau oso garrantzitsua da baina da nahasgarria izan daiteke ikasleentzat; eskema egiteko datuak argudio barik, azalpen bilaka ditzaketelako. Hona hemen (b) gaiaren eredia. Ikasleak zalantzati badaude, saiatu eredia zuzenean erakutsi beharrean, azalpen argiak ematen beraien kabuz irits daitezen argudioak sortzera.

Bertsolaritza masa fenomeno

Kontsigna: Bertsolaritza masa fenomeno bilakatu zen laurogeiko hamarkadatik aurrera.

1. Bertsolaritza masa fenomeno bilakatu zen laurogeiko hamarkadatik aurrera.

(SARRERA/ TESIA)

1.1. Bertso Eskolak sortu zirelako. **(1.mailako argudioa)**

1.1.1. Gaur egun edonork dauka bertsotan ikasteko aukera: haurrek, helduek, euskaldun zaharrek nahiz berriek, herrietakoek zein hirietakoek.

(2.mailako argudioa)

1.2. Komunikabideetan bere lekua lortu zuelako. **(1.)**

1.2.1. Gaur egun telebistan, irratian, prentsan zein interneten jarraitu daitekeelako. **(2.)**

1.3. Bertsolarien profila aldatzen hasi zelako. **(1.)**

1.3.1. Gero eta bertsolari gazteagoak eta "hiritarragoak", eta batez ere emakumeen presentziak gorakada nabarmena. **(2.)**

1.4. Formatu ezberdinetako saioak egiten hasi zirelako. (1.)

1.4.1. Bertso afariak, poteoak, bertso antzerkiak, saio musikatuak (2.)
(ARGUDIAKETA)

2. Azken urte hauetan bertso munduan egindako berrikuntzei esker, gaur egun euskara hutsean egiten den jarduerarik arrakastasuenetako bat da.

(BUKAERA/ ONDORIOA)

III. MATERIAL OSAGARRIA

Gaia	Lotura
Norberaren herrian D ereduan ikasteko eskubidea	http://www.kontseilua.org/index.php?id_saila=54&id_dukia=537
Duintasun bideak (bideoa)	http://vimeopro.com/duintasun/bideak/
Frankismo garaian euskara debekatua	http://www.ahotsak.com/zumaia/pasarteak/zum-063-003/
Antzinako trikitilariak	http://ekaitzaldi.blogspot.com.es/2008/03/leon-maurizia-fasio-eta-basi-alboka-eta.html
Euskal Eskolaren hastapenak	http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/bidegileak/33_eirakaskuntzan.pdf
<i>Bertsolari</i> (Asier Altuna, 2011)	http://txintxua.com/es/
Testu antolatzaileak	http://euskaljakintza.com/kontsultategia/antolatzaileak-1/

IV. TXANGOAK:

Txangoa	Informazioa
Memoria historikoaren euskal interpretazio zentrura (Elgeta) +	http://www.elgeta.org/ezagutu/elgeta-eta-gerra-zibila
Intxortako frontera	http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/museo.php?id=eu&Nmuseo=1320313869

Soinuenea (Oiartzun)	http://herrimusika.org/museoa/zerbitzuak.php?id=eu
Arantzazuko Santutegia	http://www.turismodebagoiena.com/eu/arantzazu/arantzazuko-bisita-gidatuak

ERANSKINAK.

1. IRAKASLEARENTZAKO JARRAIBIDE OROKORRAK:

Azken xedea

- Modu laburrean bada ere, azaldu Sekuentzia Didaktikoan zehar jarraituko duten prozesua.
- Argi azaldu ikaste-helburuaren eta azken ekoizpenaren nondik norakoak
- Urrats honek aukera ematen digu proiektuaren nonik norakoak bereganatzeko eta ikasleekin ikaste-prozesua negoziatzeko
- Hitz gakoa: diziplinartekotasuna, ikaste prozesu berean ikasgai ezberdinetako edukiak uztartzea.

Zer dakigu gaiari buruz?

- Ikasleak talde txikietan eztabaidatzen dihardutenean, ahalegindu beraien elkarrizketetan adi egoten baina interbentzio larregi egin barik.
- Modu naturalean ateratzen ez bazaie, saiatu ikasle guztien parte hartzea sustatzen.
- Talde handian ideiak botatzen ari direnean, egin entzute aktiboa eta galderaren bat egiten badute, saiatu birformulatzen eta beraiei itzultzen.
- Gogoratu eta azpimarratu, jarduera honetan zer dakiten adieraztea bezain garrantzitsua dela zalantzak non izan dituzten esatea.

Aurretetua sortzen

- Ariketa hau praktikoa denez, ikasleei hainbat zalantza sortuko zaizkiela aurreikus genezake. Kontsignari buruzko galdera baldin bada, ahalik eta modu argienean erantzun baina saiatu ekoizpenaren inguruko pista larregirik ez ematen.
- Garrantzitsua da ikasgelan idazketarako giro egokia egotea (lasaitasuna, isiltasuna...) ikasleak kontzentratu daitezen. Horretarako, estrategia egokia izan daiteke musika lasaia jartzea.
- Aurretetuak aukera emango digu ikasleek dakitena ikusteko eta dituzten hutsuneak identifikatzeko. Behar horien arabera, sekuentzian zehar landuko diren jarduerak ezberdinak izango dira.

Eredua aztertzen

- Talde txikietan daudenean, saiatu modu naturalean ikasle guztiak parte hartzera bultzatzen.
- Talde handian kontrol-zerrenda osatzeko ideiak botatzen ari direnean, beraien ideia zein den esateaz gain, zergatik aukeratu duten azaltzea eskatu; eta gauza bera norbaitek beste baten posamena ematen ez duenean. Aprobetxatu ahozko ariketa hau ikasleek argudiaketa landu dezaten.

Kontrol-zerrenda eraikitzen

- Kontrol-zerrenda aurretestuaren hausnarketarekin batera hasiko gara osatzen eta prozesu osoan zehar (sekuentzia bukatu arte) erantsiko dizkiogu elementu berriak.
- Irakaslearen laguntza ezinbestekoa izango da.

Dokumentala ikusten eta gaia zehazten

- Dokumentala ulertzeko estrategia aberasgarria izan daiteke ikasleek oharrak hartzea baina garrantzitsua da atalen banaketa egitea; hartara, guztiek jarriko baitute arreta gehiago pasarte jakinen batean baina ez dira dokumental osoan zehar oharrak hartzearekin itsutuko eta beste aspektu batzuei ere erreparatuko diete (irudiak, soinuak...). Helburua, hausnarketa egiteko guztion artean dokumentalaren ikuspegi ahalik eta zehatzena eta osatuena lortzea da.

Eztabaida dezagun.

- Jarduera honetan talde txikian lan egitetik hasiko gara eta, ondoren, talde handira eramango dugu, ikasle guztiek ekarpenak egin ahal izan ditzaten.
- Argi azaldu kontsignan agertzen diren esaldiak aurreiritziak baino ez direla, eta azpimarratu horiek eraisteko argudioak eman behar dituztela, ez iritziak bakarrik.
- Interesgarria izan daiteke arbelean ideia nagusiak biltzen joatea, ikasleek jardueraren bukaeran gaiaren argazki orokorra izan dezaten.

Gu ere ikerlari

- Ikasleek oso argi ez badute, lagundu azken ekoizpenerako gaiak edo aurreiritziak antolatzen.
- Ematen dituzun informazio-iturriak gaurkotuak eta fidagarriak izan behar dira.
- Saiatu gaiei dagokienez aniztasuna bermatzen.

Testua ekoizten eta argitaratzen

- Gogorarazi kontrol-zerrenda erabili behar dutenean.
- Testuari zuzenketak egin ondoren, hartu tartetxo bat ikasle bakoitzak bere testua berrikus dezan eta bermatu zuzenketen zergatiak ulertzen dituela.
- Blogean publikatu ondoren, helarazi ingurukoei ikasleek egindako lana. Ondo egongo litzateke ikasleei euren testuei buruzko iritzia kanpoko norbaitek ere ematea (erabilgarriak izan direla ikus dezaten).

Azken gogoeta: Sekuentzia Didaktikoaren balorazioa.

- Galdera hauek berdinak izango dira proiektuko Sekuentzia Didaktiko guztietan.
- Zeuk ere erantzun ditzakezu Sekuentzia Didaktikoa baloratzeko.

- Jaso eta aztertu ikasleen erantzunak. Horien arabera, egin ezazu zeure lanari buruzko gogoeta. Honako galdera hauek har ditzakezu abiapuntutzat:

1. Aurreikusten nituen helburuak bete al ditut?
 - Ikasleei iritsi al zaie gai honekin helarazi nahi genien mezua?
 - Azken ekoizpenak txukunak izan al dira oro har?
2. Zein estrategia izan da arrakastatsua? Zeintzuk ez?
3. Zer hobetu nezake aurrera begira?

2. DENBORALIZAZIOA (saio bakoitza ordubeteko delako kalkulatu)

1. Historiaurrea

Saioa	Jarduera
1	Azken xedea 1. jarduerak: ZER DAKIGU GAIARI BURUZ?
2	2. jarduerak: MEZU ELEKTRONIKOAK IDAZTEN IKASTEN
3	3. jarduerak: TESTUEN EGOKITASUNA 4. jarduerak: EREDUA AZTERTZEN
4	5. jarduerak: MEZU ELEKTRONIKOEN EGITURA 6. jarduerak: KONTROL-ZERRENDA ERAIKITZEN
5	7. jarduerak: ARDATZ KRONOLOGIKOA
6	
7	8. jarduerak: KOMUNIKAZIO MODUEN BILAKAERA
8	9. jarduerak: "HISTORIAURREA" DOKUMENTALA
9	10. jarduerak: EZTABAIDA DEZAGUN 11. jarduerak: GU ERE IKERLARI
10	11. jarduerak: GU ERE IKERLARI 12. jarduerak: GUTUNA IDAZTEN
10	12. jarduerak: GUTUNA IDAZTEN
12	13. jarduerak: IKASITAKOAZ HAUSNARTZEN

2. Erromako inperioan

Saioa	Jarduera
1	Azken xedea 1. jarduera: ZER DAKIGU GAIARI BURUZ?
2	2. jarduera: DIAPOSITIBAK EGITEN IKASTEN
3	3. jarduera: EREDUA AZTERTZEN 4. jarduera: KONTROL-ZERRENDA ERAIKITZEN
4	5. jarduera: AZALPEN TESTUEN EGITURA
5	6. jarduera: TESTUA OSATZEN
6	7. jarduera: INFORMAZIOA LABURTZEN ETA ESKEMATITZATZEN
7	8. jarduera: AHOZKO AURKEZPENETARAKO ESTRATEGIAK
8	9. jarduera: DOKUMENTALA: "ERROMAKO INPERIOAN"
9	10. jarduera: EZTABAIDA DEZAGUN
10	11. jarduera: GU ERE IKERLARI
11	
12	12. jarduera: AHOZKO AURKEZPENAK EGITEN 13. jarduera: IKASITAKOAZ HAUSNARTZEN

3. Aniztasunaren bidean (Erdi Aroa)

Saioa	Jarduera
1	Azken xedea 1. jarduera: ZER DAKIGU GAIARI BURUZ?
2	2. jarduera: ALBISTEAK EGITEN IKASTEN
3	3. jarduera: KAZETARITZA GENEROAK EZAGUTZEN
4	4. jarduera: EREDUA AZTERTZEN
5	5. jarduera: KONTROL-ZERRENDA ERAIKITZEN

6	6. jarduera: DOKUMENTALA: "ANIZTASUNERA BIDEAN"
7	7. jarduera: EZTABAIDA DEZAGUN
8 9	8. jarduera: GU ERE IKERLARI
10	9. jarduera: ALBISTEA EKOIZTEN
11	10. jarduera: ALBISTEA EBALUATZEN ETA ARGITARATZEN
12	11. jarduera: IKASITAKOAZ HAUSNARTZEN

4. Mugetan gaindi (Aro Modernoa)

Saioa	Jarduera
1	Azken xedea aurkeztu 1. jarduera: ZER DAKIGU GAIARI BURUZ?
2	2. jarduera: TESTU BATEN ESKEMA ETA LABURPENA EGITEN IKASTEN
3	2. jarduera: TESTU BATEN ESKEMA ETA LABURPENA EGITEN IKASTEN
4	3. jarduera: EREDUA AZTERTZEN
5	4. jarduera: KONTROL-ZERRENDA OSATZEN
6	5. jarduera: "MUGETAN GAINDI" DOKUMENTALA IKUSTEN ETA GAIA ZEHAZTEN
7	6. jarduera: EZTABAIDA DEZAGUN
8	7. jarduera: GU ERE IKERLARI
9	7. jarduera: GU ERE IKERLARI
10	8. jarduera: PANELAK EGIN ETA IKUSGAI JARTZEN
11	8. jarduera: PANELAK EGIN ETA IKUSGAI JARTZEN
12	9. jarduera: IKASITAKOARI BURUZ HAUSNARTZEN

5. Gerren arteko pizkundean (XIX. mendea-1944)

Saioa	Jarduera
1	Azken xedea aurkeztu + 1. jarduera: ZER DAKIGU GAIARI BURUZ?
2	2. jarduera: AZALPEN TESTUA EGITEN IKASTEN
3	3. jarduera: EREDUA AZTERTZEN
4	4. jarduera: KONTROL-ZERRENDA ERAIKITZEN 5. jarduera: "GERREN ARTEKO PIZKUNDEAN" DOKUMENTALA
5	5. jarduera: "GERREN ARTEKO PIZKUNDEAN" DOKUMENTALA 6. jarduera: EZTABAIDA DEZAGUN
6	7. jarduera: GU ERE IKERLARI
7	7. jarduera: GU ERE IKERLARI
8	8. jarduera: GIDOIA PRESTATZEN
9	8. jarduera: GIDOIA PRESTATZEN
10	9. jarduera: EMOZIOAK LANTZEN
11	10. jarduera: AHOZKO AZALPENA EKOIZTEN ETA EBALUATZEN
12	11. jarduera: IKASITAKOARI BURUZ HAUSNARTZEN

6. Mundua osatzen (1944-gaur egun arte)

Saioa	Jarduera
1	Azken xedea aurkeztu 1. jarduera: ZER DAKIGU GAIARI BURUZ?
2	2. jarduera: ARGUDIO TESTUA EGITEN IKASTEN
3	3. jarduera: EREDUA AZTERTZEN
4	4. jarduera: KONTROL-ZERRENDA ERAIKITZEN 5. jarduera: KOEBALUAZIOA
5	6. jarduera: PUZLEA OSATZEN

6	7. jarduera: ESKEMA EGITEN
7	8. jarduera: "MUNDUA OSATZEN" DOKUMENTALA IKUSTEN ETA GAIA ZEHAZTEN
8	9. jarduera: EZTABAIDA DEZAGUN
9	10. jarduera: GU ERE IKERLARI
10	10. jarduera: GU ERE IKERLARI
11	11. jarduera: TESTUA EKOIZTEN ETA ARGITARATZEN
12	12. jarduera: IKASITAKOARI BURUZ HAUSNARTZEN